

# MARRAZKIEN BIDEZKO ADIERAZPEN EMOZIONALA HAURTZAROAN

GRADU AMAIERAKO LANA

**EGILEA:** Campayo Buján, Eider.

**ZUZENDARIA:** Gutierrez Ajamil, Estibaliz.

**2022ko ekaina**

## **LABURPENA**

Ikerketa honen helburua eskolan egiten den marrazkiaren erabilera aztertzea da, zehazki Lehen Hezkuntzan, ikasleen eta irakasleen ikuspegitik. Era berean, hurrek marrazkien bidez pentsamenduak eta emozioak adierazteko gaitasun handiagoa duten egiaztatu nahi da, hitzen bidezko adierazpenarekin alderatuta. Gaia teorikoki kokatzeko, lehenik eta behin, haurrentzako marrazkiari buruzko berrikuspen bibliografikoa egin da, marrazketa LHko ikasleen garapenean duen garrantzia eta eskolan ekoizpen hauei ematen zaien erabilera ulertzeko. Bestalde, ikerketa honen helburuak lortzeko, galdetegiak erabiltzeaz gain, ikasleen adierazpen grafikoak eta hitzezko adierazpenak erabili dira. Ikerketa honetan, Euskal Herriko 19 ikastetxe ezberdinetako 54 irakasle eta San Prudentzio ikastetxeko 49 ikasle, 9 eta 10 urte bitartekoak parte hartu dute. Emaitez erakusten dutenez, marrazkia haurren egunerokotasunean dagoen jarduera bat da, eta ikasle zein irakasle gehienek aisialdiarekin lotzen dute, adierazpen grafikoaren eduki eta gaitasun pedagogikoak gutxietsiz. Irakasleen ezagutza faltagatik haurren marrazketari garrantzi gutxi ematen zaion arren, txikientzako adierazpen- eta komunikazio-tresna bikaina dela frogatu ahal izan da.

**Hitz gakoak:** haurren marrazketa, eskola, emozioak, adierazpena, komunikazioa.

## **RESUMEN**

El objetivo de esta investigación consiste en analizar el uso del dibujo en la escuela, concretamente en Educación Primaria, desde el punto de vista tanto del alumnado como del profesorado. Asimismo, se quiere comprobar si a través de los dibujos los niños son más capaces de expresar sus pensamientos y emociones que con palabras. Para situar teóricamente el tema, primero se ha hecho una revisión bibliográfica sobre el dibujo infantil, haciendo hincapié en la importancia que tiene en el desarrollo de los niños de Educación Primaria y en el uso que se les da a las producciones gráficas del alumnado en la escuela. Para lograr los objetivos, además de diseñar cuestionarios específicos, se han utilizado las expresiones gráficas, escritas y orales del alumnado. Se trata de un estudio en el que participan 54 profesores de 19 colegios distintos del País Vasco y 49 niños de entre 9 y 10 años del colegio San Prudencio. Como demuestran los resultados, el dibujo es una actividad que está en el día a día de los niños y la mayoría de ellos y de profesores, lo relacionan con el tiempo libre, dando menor importancia a los contenidos y capacidades pedagógicas de la expresión gráfica. A pesar de la poca importancia que se le da al dibujo infantil por la falta de conocimiento del profesorado, se ha podido demostrar que es una excelente herramienta de expresión y comunicación para los más pequeños.

**Palabras clave:** dibujo infantil, escuela, emociones, expresión, comunicación.

## **ABSTRACT**

The aim of this research is to analyze the use of drawing in school, specifically in Primary Education, from the point of view of both students and teachers. Likewise, it is wanted to verify if through the drawings children are better able to express their thoughts and emotions than with words. In order to place the subject theoretically, first a bibliographic review on children's drawing has been made, emphasizing the importance it has in the development of children and the use that images are given in school. To achieve the objectives, in addition to designing specific questionnaires, the graphic, written and oral expressions of the students have been used too. In this study have participated 54 teachers from 19 different schools of the Basque Country and 49 children between 9 and 10 years old from San Prudencio school. As the results show, drawing is an activity that is part of children's daily lives and most of them and the majority of the teachers associate it with free time, giving less importance to the contents and pedagogical capacities of graphic expression. Despite the little importance given to children's drawing because of teachers' lack of knowledge, it has been shown that it is an excellent tool of expression and communication for the little ones.

**Key words:** children's drawing, school, emotions, expression, communication.

## AURKIBIDEA:

<b>1. JUSTIFIKAZIOA</b>	4
<b>2. SARRERA</b>	5
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	6
3.1- Haurren marrazketa	6
3.1.1- Marrazkiaren garrantzia haurtzaroan	6
3.1.2- Marrazketaren etapak eta garapena	8
3.2- Marrazketa Lehen Hezkuntzan	11
3.2.1- Marrazketaren arriskuak eta irakaslearen papera	11
3.2.2- Marrazkia komunikatzeko tresna gisa	13
3.3- Irudien erabilera eskolan	15
3.3.1- Ikusizko curriculum ezkutua	15
3.3.2- Emozioen lanketa irudien bidez	16
<b>4. METODOA</b>	18
4.1- Helburuak	18
4.2- Ikerketaren testuingurua	19
4.3- Parte-hartzaileak	19
4.4- Ikerketaren prozedura	20
4.6- Ikerketa tresnak	21
<b>5. EMAITZAK</b>	23
5.1. Irakasleriaren ikuspuntua	23
5.2. Ikasleriaren ikuspuntua	25
<b>6. ONDORIOAK</b>	29
<b>7. MUGAK ETA HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK</b>	33
<b>8. ERREFERENTZIAK</b>	35
<b>9. ERANSKINAK</b>	38
1. ERANSKINA: Marrazketaren etapak	38
2. ERANSKINA: Emozioak lantzeko materiala	40
3. ERANSKINA: Irakasleentzako galdetegia (egindako galderak eta jasotako erantzunak)	41
4. ERANSKINA: Irakasleek galdetegian emandako argudioen sailkapena	45
5. ERANSKINA: Ikasleentzako galdetegia (egindako galderak eta jasotako erantzunak)	50
6. ERANSKINA: Ikasleen adierazpen grafikoak	53

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lan honen gaia aukeratzeko, aurretik izandako practicum esperientzietan oinarritu naiz. Lehen Hezkuntza graduako ikaslea izan arte ez naiz arte-hezkuntzaren garrantziaz jabetu, beste irakasgaiekin alderatuz beti bigarren mailan egon den irakasgaia izan baita. Normalean, curriculumaren barruan, plastika pisu gutxien duen irakasgaietako bat da eta horrekin lotuta, horri buruzko ezagutza duten oso irakasle gutxi daude. Hori dela eta, behin praktiketan egonda, plastika edo arte orduetan egindako jardueri arreta jartzea ezinbestekoa egin zait. Eskoletan errealitatea behatuz gero, konturatu naiz ez daudela arte-hezkuntzan espezializatuta dauden irakaslerik, liburuetako argibideak jarraituz mugatzen direla eta liburuak izanez gero, gehien proposatzen duten teknika marrazketa dela.

Nahiz eta gailu teknologikoen erabilera areagotu, marrazketa Lehen Hezkuntzako ikasleek gehien erabiltzen duten baliabidea da eta hori kontuan hartuz, horren inguruan gehiago ikertu nahi izan dut. Haurrentzat marrazkiek garrantzi handia daukate zerbait komunikatzeko edo transmititzeko modua delako baina, askotan, helduok ez diegu benetan duten balioa ematen umeei sortutako irudiei. Ikastetxeetan ikusi dudanagatik marrazketa denborapasa gisa erabiltzen da, hutsune libreak betetzeko helburuarekin. Modu horretan, ikasleak lasai eta isilik mantentzea lortzen dute.

Umeei sormenez beteta daude eta marrazkien bidez barruan dutena oso erraz adierazten dute beraz, marrazkiak ikasketa prozesuan oso erabilgarriak izan ahal direla uste dut. Irakasleek normalean, ikasle baten marrazki bat jasotzen dutenean, ez dira ohartzen horri esker informazio asko jaso daitekeela eta ez dituzte kontuan hartzen ezta baloratzen ere. Umeei marrazkiak komunikabide tresna bat delakoan, emozioen gaiarekin lotzeko aukera ona ikusi dut.

Bestalde, hezkuntzan arlo emozionala pisu gutxi duen beste gai bat dela deritzot eta lantzekotan, tutoretza irakasgaiko ordu eskasak eskaintzen direla ikusi dut practicum desberdinetan. Emozioak kontzeptu hain abstraktuak direnez, umeei zaila egiten zaie horiek ulertzea eta horren ondorioz, nola sentitzen diren azalratzea edo identifikatzea. Kasu horretan, marrazketa gai hori lantzeko baliabide ona izan daitekeela uste dut. Adierazpen grafikoaren bidez barruan dutena adieraztea haien errazagoa izan daiteke hitzezko narrazioa erabili beharrean eta horrek, besteen larruan jartzen eta komunikazioa hobetzen lagun dezake. Hau guztia esanda, marrazketaren baliagarritasunei eta onurei buruzko dagoen ezezagutzagatik, gai honi heltzea, aztertzea eta datu errealak jasotzea interesgarri egin zait.

## 2. SARRERA

Lan hau haurren marrazketan oinarrituko da; izan ere, haurren marrazkia ez da dibertimendu eta entretenimendurako tresna hutsa, haurrek adierazteko duten modua behatzeko leiho bat baizik, komunikatzeko modu bat, haurrek beren emozioak, sentimenduak eta sentsazioak erakusteko erabiltzen duten bidea. Baina, gaur egungo eskoletan zer nolako erabilera ematen zaio marrazketari?

Arte hezkuntza curriculumaren parte da baina gero errealitatean, bere presentzia ez da hain nabarmena. "Gehienetan marrazkigintza curriculumeko funtsik gabeko ekimen bat besterik ez da izaten; haurren plazererako edo sarirako eskaintzen den "presiorik" gabeko ekimen bat edo azkar bukatzen dutenen aisialdiak betetzeko irtenbide bat." (Aguirre, 1997, 9. or.). Hala ere, marrazketaren onurak anitzak dira gehienetan kontuan hartzen ez direnak.

Marrazkiekin haurrak bere egoera psikologikoa eta ongizate emozionala adierazi dezake baita motrizitate fina garatu ere, idazketaren ondorengo prozesuak erraztuz. Gainera, marrazketaren bidez, haurrek sentitzen dutena esan dezakete, beren barne-munduaren eta kanpo-munduaren arteko harremana egiteko aukera ematen baitie, sozializatorako urrats esanguratsua izanik. Umeek garapenaren lehenengo etapetan oraindik ez dute ahozko edo idatzizko adierazpena ondo menperatzen beraz, marrazkien bidez komunikatu daitezke. Marrazkiei esker informazio asko jaso daiteke eta garrantzitsua da haien marrazkiak ulertzen saiatzea. Haurren marrazketa aztertzeak beren emozioak nola adierazten dituzten eta inguruko gauzak nola ikusten dituzten jakiteko aukera ematen du (Aquino et al., 2021).

Horrekin lotuta, lan honen ikerketaren atal bat emozioen gaiarekin lotura zuzena izango du, idatzizko adierazpen eta adierazpen grafikoen arteko ezberdintasunak aztertuz. Gaur egun, eskola askok ikasleen alderdi akademikoan bakarrik jartzen dute arreta, baina ez dute haien emozioen laketarik egiten. Hezkuntza intelektuala ez da nahikoa, gaitasun afektiboak eta sozialak garatu behar dira, eta hori artearen bidez lortzen da (Michelle, 2016). Oinarritzko Hezkuntzako Curriculumak (2015) dioen bezala, ekintza egokiak egiteko ezinbestekoa da zehar-konpetentziak batera eta bereizketarik gabe lantzea. Ikasleek pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen eta izaten jakin behar dute.

Azkenik, ikerketa honek pizgarri bat izan nahi du harren marrazketari balioa emateko eta horren bidez, irakasleak ikasleen barnera iristea, ikaskuntza prozesuan eta komunikazioa sustatzen lagunduz. GrAL honen xedea da eskoletako gaur egungo marrazkigintzaren errealitatea behatzea, ikasleen zein irakasleen ikuspuntua ezagutzea eta horrekiko jarrera aldatzea ere, behar duen garrantzia emanez. "Irakaslearen papera marrazkia ikusterakoan eduki batzuk lantzen direla kontuan hartzea izango da" (Aguirre, 1997, 16. or.).

### **3. MARKO TEORIKOA**

Marko teorikoan, txostenean zehar eskoletan marrazketaren erabilera aztertzeko esanguratsua diren oinarri teorikoak agertuko dira, 3 atal nagusitan banatuta: lehenengoan, haurren marrazketari buruzko teorian sakonduko da, haurtzaroan duen garrantziaz azpimarratuz eta autore ezberdinek bereizten dituzten etapak eta garapena aipatuz. Bigarren atalean, eskola-eremuan jarriko da arreta, Lehen Hezkuntzan zehazki. Bertan, marrazketan egon daitezkeen arriskuak eta irakasleek izan beharreko papera islatuko da. Horretaz gain, marrazketa komunikatzeko tresna gisa duen erabileraz hitz egingo da. Azken atalarekin, eskolan irudiei emandako erabilera ezagutarazten da, ikusizko curriculum ezkutuari adiera emango zaio eta eskolan emozioen lanketa egiteko, erabiltzen diren irudiak ezagutuko dira.

#### **3.1- Haurren marrazketa**

##### **3.1.1- Marrazkiaren garrantzia haurtzaroan**

Marrazkia gizateriaren adierazpide zaharrenetako bat da. Historiaurretik komunikazio-modu gisa erabiltzen da eta denborarekin, forma, trazu eta material berriak irabazten joan da. Marrazkiak altxor adierazkor bat irudikatzen du haurrentzat, eta altxor horren bidez gauza asko esaten dituzte haien buruz (Maestre, 2010). Euskarri horretan, objektuaren eta pertsonaren balioak nahastu eta gurutzatzen dira, eta elkarrizketa inkontziente bat zehazten da, subjektuaren eta objektuaren eskakizunak bateratzen saiatzen dena. Jarduera grafiko eta haren produktua, marrazkia, jokabide osagarriak dira, eta, aldi berean, pertsonaren adierazpena bideratzen dute, baita subjektuak bere buruarekin eta hurkoarekin duen komunikazioa ere (López eta Martínez, 2006).

Marínen arabera (1988), marrazkia gizabanakoaren adierazpen bat da, eta, haren bidez, bere pentsatzeko eta ulertzeko modua agerian utz dezake, baita bere nortasuna, sentimenduak eta interesak islatu ere. Haurrak ezagutzen duena, ikasi duena, ulertzen duena, interpretatu duena, fantasia bihurtu duena marrazten du, inguratzen duen mundua modu subjektibo eta indibidualean hautematen eta interpretatzen duelako, eta horri erantzuten dio, bere jarrera, interes, gaitasun, ohitura, desio edo aldartearen arabera. Faktore biologiko, psikologiko, sozial, kultural eta sinboliko horiek guztiek beren diskurtsoaren forma eta mamia zehazten dute zerbaiten gainean marrazteko unean. Hor dago haurren marrazkiaren aberastasuna (Jiménez, et al., 2008).

Lealek (2010) dio Luquet eta Piageten ekarpenek balio izan zutela argitzeko haurren marrazkiak ez zuela errealitate zehatz bat kopiatzen, baizik eta egile txikiek arkatzarekin beren intereseko gai edo errealitate bat adierazten saiatzean buruan konfiguratzeko dituzten

elementu errepresentazionalak adierazten dituztela. Beraz, marrazketa tresna ona da haurrak errealitatera hurbiltzeko, beste adierazpide batzuen bidez nekez uler daitezkeen ideiak, sentimenduak eta emozioak azaleratzeko. Prozesu horretan, bere esperientziaren elementuak biltzen ditu, komunikatzeko eta pentsatzeko, sentitzeko eta inguratzen duen mundua hautemateko balioko dion zerbait berria sortzeko (Puleo, 2012). Haurrei egiten dituzten gauzak baliotsuak direla ikustea gustatzen zaie autoestimua areagotzen laguntzen dielako (García-López, 2019).

Marrazketa, haurraren komunikazio- eta adierazpen-bide nagusietako bat izateaz gain, gizabanakoaren garapen integrala bultzatzen duen tresna da. Marrazkiak haurren bizitza kontatzen badu, haurren psikomotrizitatean, garapen kognitiboan, irakurtzen eta idazten hastean, sormena, autokonfiantza, nortasuna, heldutasun biologiko eta psikologikoan ere onura handiak ematen ditu, eta horrek ikasteko baliabide bikaina bihurtzen du (Manjarrés, 2015). Puleok (2012) marrazkiak haurren garapenean egindako ekarpen ugariak ere nabarmetzen ditu. Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da, marraztean, material desberdinak erabiliz gertatzen den gorputz-mugimenduak zentzumenak estimulatzeko eta psikomotrizitate fina eta esku-okularraren koordinazioa garatzen laguntzen duela. Horrekin lotuta, adierazten du marrazteko ekintza norbanakoa idazteko prestatzen duen jardura bat dela, eta, beraz, haren zirriborroek aurrera egiten dutela haurraren garapen ebolutiboa gertatzen den heinean. Azken ekarpen horri Maestrek (2010) ere eusten dio, zirriborroan eta marrazkian haurrak irakurketaren eta idazketaren funtsezko aurrebaldintzak garatzen dituela adieraziz.

Marrazten ikasteko prozesua garapen psikomotorrekin zuzenki lotura dago, izan ere, haurren gorputzean garatzen den azken zatia gorputz-adarrak dira horregatik, haurtxo batek arkatza ematen zaionean zirriborroak egiteko motrizitatea besterik ez du. Koordinazio motorra garatu ahala, kontrol handiagoa hartzen du eta gero eta figura konplexuagoak egin ditzakeela ohartzen da. Beste alde batetik, umeak bere ingurunea ulertu ahala, irudien kode kulturalak barneratzen doa. Horregatik, lehenengo urteetan kolorearen aukeraketa egilearen bizipen eta esperientzien arabera izango da, eta Lehen hezkuntzako etapan zehar hasiko da kolorerik "egokienak" esleitzen egiten dituen marrazkiei, bere errealitatean behatutako kromatismoa jarraituz. (Cabrera-Méndez, 2011). Beraz, marrazkigintza motrizitatearen garapenean eta bakoitzak bizitzan zehar dituen esperientzia sentsozialen, ezagutzazkoen, sozioafektiboaren multzoaren arabera da. Marrazkigintzan giza mugimenduen adierazkortasun osoa aurkitzen dugu (López eta Martínez, 2006).



Marrazkiak pertsonaren arreta eta kontzentrazioa errazten du eta nortasunaren garapena, sormena eta irudimena bultzatzeaz gain, gure buruarekiko konfiantza sustatzen du, emozioak bideratzeko bitarteko bat baita. Pertsonen arteko komunikabidea da, hitzik gabeko hizkuntza, bere buruarekin eta besteekin komunikatzen laguntzen duena, eta, haren bidez, emozioak, sentimenduak eta sentsazioak adierazten dituena (Maestre, 2010; Puleo, 2012). Aurretik aipatutakoarekin, marrazketak haurren garapenean pisu handia duela baieztatu daiteke hainbat arlotan (psikomotorrean, kognitiboan, psikologikoan, etab.) onura asko eskaintzen dituelako.

Bestalde, marrazkietan haurrak hazi eta garatu ahala jasaten dituen eraldaketa guztiak islatzen dira. Margoen bidezko aztarna uztea jarduera-motor espontaneo da, konplexua eta gero eta koordinatuagoa, eta nortasuna sortzen laguntzen du. Mugimendua menperatzeak eremu psikomotorrean, intelektualean eta afektiboan heltzea esan nahi du. Lehen mugimendu- eta trazu-esperientzien ondoren, garuneko konexio asko egonkor mantentzen dira. Zirriborroan eta marrazkian, irakurketaren eta idazketaren oinarriko baldintzak garatzen ditu haurrak (Maestre, 2010). Marrazkiak hezkuntza-bertute handiak ditu, eta gauza asko lor daitezke etengabe praktikatuta. Harrigarria da haur batek marrazten duenean duen kontzentrazioa, egiten hasten den trazu batzuek forma eta esanahia hartzen duten modua. Horregatik da hain garrantzitsua ikusizko lengoia menperatzen laguntzea eta marrazkiak lehen zirriborrotik balioestea, bere buruarekin eta besteekin komunikatzeko erabiltzen duen adierazpide pertsonala delako. Lehen urteetan, indibidualtasuna eta autoestimua bultzatzen ditu, nortasun sortzaile eta asmatzailea sustatuz (Muñoz-Rodríguez, 2019).

Argi dago marrazkiak onura handiak ekartzen dituela umeen garapenean zehar eta haurrak komunikatzeko erabiltzen duela; artean oinarritutako mundu-ikuskeraren transmititzeko modu gisa. Horregatik, irakasleek, ahal den neurrian, sorkuntza horretatik haratago ikusten saiatu behar dute, nolabait beren haurrak ezagutzeko eta beren jokabideen zergatia ulertzeko lan-tresna gisa balioko dioten mezu horiek deszifratzen ikasi behar dute (Muñoz-Rodríguez, 2019). Marrazkia irakasleentzako azterketa- eta diagnostiko-elementu bat da, haurren irudimena eta askatasuna askatzeko bitarteko ezin hobea izateaz gain. Aske sentitu behar dira eta beren barne-mundua modu naturalean adierazi ahal izateko. Haurrak sortzen duen marra bakoitzak bere nortasunari, adimen-mailari, sormenari, trebetasunari, koordinazioari eta baita aldaritari buruzko informazioa eman diezaguke (Maestre, 2010).

### **3.1.2- Marrazketaren etapak eta garapena**

Haurrak marrazketan hainbat etapa esperimentatzen ditu, gutxien garatutako ekoizpenetatik (zirriborroak, adibidez) errealitatearen ekoizpen doitu eta finenetaraino.

Eboluzio hori lotuta dago, gizabanakoaren adinarekin ez ezik, heltze neurologiko eta fisiologikoarekin, pertzepzio- eta mugimendu-gaitasunarekin, ariketa eta esperimentazio goiztiarrarekin, segurtasun afektiboarekin eta jasotako motibazioarekin (Maestre, 2010). Marrazkiak etapa desberdinak igarotzen ditu haurraren, zeinarentzat esanahi bat duten marra edo zirriborroekin hasten dena. Pixkanaka, irudi horiek itxura hartzen ari dira, bai berarentzat, bai bistaritzen dituen pertsonarentzat. Pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetuz eta marrazkien bidez bere barne-mundua adieraziz (Muñoz-Rodríguez, 2019).

Hainbat teoria daude haurren marrazketaren garapenari buruz. Luquet-k (1927) zioen ezein kontzeptuk ez duela haurren marrazkia errealismoaren kontzeptua baino hobeto definitzen. Errealista, bere gaien eta jorratzen dituen gaien izaeragatik baita bere emaitzengatik ere; haurrak batez ere bizimoduengatik interesatzen dira, forma ederrengatik baino gehiago. Hala ere, Luquet oker zebilen umearen errealitateak helduaren errealitatea eredutzat hartzen zuelako; izan ere, Piagetek gerora erakutsi duen bezala, haurren errealismoa bizitzaren pertzepzio egozentrikoarekin lotuta dago. "Ni"aren errealitatearen kontzientziarik ez duenez, haurrak uste du errealitateari buruz duen ikuspegia dela errealitate bakarra (Maestre, 2010).

Lowenfeld-en ekarpenak (1972) eskemaren ideia ingurukoak dira hau da, autore honek eskema hitzarekin egiten dio erreferentzia marrazkiak sinboloekin adierazten direnean edo forma dutenean. Haren ekarpenak gaur egunera arte iristen dira, eta, gerora gaiari buruzko azterlanak eta eguneraketak egin badira ere, horietan oinarritu gaitezke, oraindik ere indarrean daudela uste baita, baina egia da adinen mugak jaitsi egin direla gaur egun, egileak bere azterlanean aipatzen dituen estadioei dagokienez. Hala ere, etapa desberdinetako gertaeren segidaren ordenak berbera izaten jarraitzen du.

Jean Piaget-ek (1975) bestalde, haurraren marrazkiak sinbolizazio-prozesu orokorraren hazkundera bultzatzen duela adierazten du, adierazteko gaitasuna garatzen duela eta sormena bultzatzen duela. Gainera, adierazpen plastikoa haurraren garapen intelektualerako ezinbesteko prozesua dela adierazi du. Autore honek planteatzen du, 2 eta 7 urte bitarteko prestakuntza-aldian, haurrak marrazteko trebetasuna garatzen duela. Motrizitate finaren garapena lehenengo eta laugarren urteen artean gertatzen da, haurrek objektuak manipulatzeko ikasten dutenean eta muskuluak garatzen hasten direnean. Trebetasunak eskuratuz gero, konplexuagoak diren beste batzuk eskura daitezke. Lurçat-ek (1982) haurren marrazketan gertatzen diren aldaketez hitz egiten du. Zirriborro soiletatik gero eta identifikagarriagoak diren irudiak osatzera pasatzen gara. Jarduera grafikoa gainerako ikaskideen, irakaslearen iradokizunen eta proposamenen eragina duen

adierazpidea da. Lehen hezkuntzako etapan, pixkanaka espazio grafikoak eta formak menderatzen dira. Ondoren, formak idazteko eta erreproduzitzeko aldira igarotzen da, ibilbidea errespetatuz.

Vigotsky-k (1990) dioen arabera marrazkia eskolaurreko adinari dagokion adierazpen-modu tipikoa da. Luquet eta Lowenfeldek ez bezala, autore honek ez ditu etapak bereizten, berak dio haur guztiek marrazten dutela, eta gutxi gorabehera, beren marrazkietan igarotzen dituzten etapak adin bereko haurrentzat antzekoak direla. Haurra hazten doan heinean eta nerabegarora hurbiltzen den heinean, normalean marrazkitik aldentzen eta desilusionatzen hasten da. Adin horretako haurren nortasunaren eta marrazteko zaletasunaren artean nolabaiteko lotura dago. Haurren indar sortzaileen kontzentrazioa da marrazkiak ahalbidetzen diola adin horretako haurrari bere kezka errazago adieraztea. Luquetek (1927) Lehen Hezkuntzaren amaieran ikasleak marrazkigintzarekiko duen interesik ezaren arazoa ere aurkezten du, hau da, ikasleak adierazpide garrantzitsu horretatik aldentzeko zituen marrazkiaren eta pintura akademikoaren irakaskuntzaren amaiera. Sternek (2008), aldiz, aitortzen du narrazioaren kezka leku garrantzitsua duela haurraren, baina benetan plazer handia dela bere marka utzi duelako.

Ikuspuntu berriago batetik, Arno Stern eta Antonio Machón bezalako autoreak ditugu. Sternek (2011) *formulazioaren* kontzeptua planteatzen du. *Formulazioa* ez da ikaskuntza baten emaitza, baizik eta sortzetiko gaitasunak garatzen dituen eta adierazpen horretara bideratzen dituen entretenimendu batena, komunikaziorako balio duten obrak sortu beharrean. Adierazpen konplexua, originala, egituratua eta unibertsala da. Haurren beharren artean oso goiz jaiotzen da, programaturako ibilbide baten arabera eboluzionatzen du eta ez da inoiz agortzen. *Formulaziotik* sortzen den haurrentzako marrazkia marrazteko asmo bakarra duen trazadura da, ez dago beste asmorik. Irudiak gure jaio aurreko bizitzatik datorren oroimenaren islatik sortzen dira, eta *Formulazioaren* adierazpenarekin bakarrik adieraz dezakegu. *Formulazioa* hazten ari den prozesua da, pixkanaka garatzen ari dena. Haurren marrazkiak poliki eboluzionatzen du, estadioz estadio, irudiz irudi, beste batzuk osatu arte praktikaturaz. Haur guztiek irudi primario berberak marrazten dituzte, eta ondoren, objektu-irudi berberak, eta heldutasunaren estadiora iristen direnean, funtsezko irudi berberak. Egile horren arabera, *Formulazioa* unibertsala da, eta pertsona bakoitzak formula berberak erabiltzen ditu hura adierazteko. Helduek ere pinturarekin jolasten dute, beraz, horietan *Formulazioa* ere egiten da (Stern, 2008).

Arno Sternek (2008), "Zirriborro" hitza eta haren konnotazio negatiboak atzean uzten ditu, *Formulazioaren* lehen urrats horri merezi duen garrantzia emateko. Haurren garapen

motorraren fase honetan egon daitezkeen marra bakarrak dira; laster eboluzio bat gertatuko da, eta haren etapek irudi segida bat adierazten dute. Sternekin deskubritzen du haur-marrazkiaren jatorri bikoitza dagoela: punteatzea eta zurrunbiloak, eta bi trazu horietatik, haurren marrazkia ez ezik, Formulazioa ere sortzen dela. Teoria eguneratu hauen harira,, Machonen (2009) ikerketak ditugu ere, erakusten dutenak marrazketak ingurua behatzera eta honetaz hausnartzera bultzatzen duela umea, eta honek irudiaren bitartez “gauza” zehatza irudikatzeke, bere eskarmentu eta esperientzian eraiki dituen kontzeptu formalak erabiltzen ditu (ez bisualak).

Denborarekin, marrazketaren inguruko informazio gehiago lortzen saiatu den arren, asko ikertzen ez den gai bat da eta urte batzuk atzera egin behar dugu informazio gehiena eskuratzeko. Autore ezberdinen teoriak aztertu ondoren, batzuk haurraren garapenaren arabera, marrazketa etapa batzuk bereiztu dituzte ([ikusi 1. eranskina](#)), baina denak ados daude marrazketan ematen den lehenengo pausua zirriborroekin edo kontrolik gabeko trazuekin hasten dela eta pixkanaka-pixkanaka, haurrak errealitateara hurbiltzen saiatzen direla. Marrazketa ez da ikasten den prozesu bat, hurrekin batera eboluzionatzen den prozesu bat baizik eta marrazkien bidez umeek duten munduarekiko-pertzepzioa adierazten dute.

## **3.2- Marrazketa Lehen Hezkuntzan**

### **3.2.1- Marrazketaren arriskuak eta irakaslearen papera**

Inguruneak eragin handia du sormenaren garapenean eta ingurune adierazgarrienak familia, eskola, antolaketa eta gizartea dira. Helduek, egiteko modua inposatu nahian, haurraren adierazpen naturala oztopatzen du eta bere sormena mugatu dezake. Izan ere, askatasunez adierazteko aukerarik ematen ez dion presio-efektua eragiten dio. Horregatik, onena da bere marrazkiaren bidez gurekin komunikatzen uztea eta berak erabakitzea nola egin. Beste faktore batzuek ere eragiten dute, hala nola haurrak bere garapen psikomotorrean izandako aurrerapenak. Honek mugimendu eta funtzio mentalen arteko harremanari egiten dio erreferentzia. Pertzepzio-garapenean, zentzumenen bilakaerari erreferentzia egiten diona, bereziki, esperientzia artistikoetan eta azkenik, begietako eta eskuzko koordinazioan, hau da, eskuen eta begien arteko lan koordinatuan edozein jarduera gauzatzean (Puleo, 2012; Muñoz-Rodríguez, 2019).

Maisuaren papera oso garrantzitsua da. Hurrekin hainbat egoeratan irudiak irakurtzeko estrategiak landu behar dira. Behin errealitatea irudien bidez hautematen denean, haurra prest dago adierazteko eta hainbat obra plastiko ekoizteko. Hurrei askatasunez adierazteko aukera eman behar zaie, horrek ez du esan nahi inolako orientaziorik gabe lan

egin behar dutenik. Irakasleak ikaslea gidatu behar du adierazpen plastikoko prozesuan: esku hartu gabe, ez ikertzera animatuz, esperimentatuz, aldatuz, sortuz eta berak erabakitzea ahalbidetuz. Une horretan egiten duenarekiko interesa erakutsi behar da, modu horretan, erosoago eta seguruago sentituko da. Laguntza eskaini behar zaio, ereduak eta estereotipoen erabilera saihestu eta gurasoei informazioa eman, hezkuntza- eta garapen-helburuak azaltzeko (Cabrera-Méndez, 2011). Hezkuntzan adierazpen plastikoaren garapena gehien oztopatzen duten jarreretako bat kopiak edo ereduak eta estereotipoak dira. Lan zehatz bat komentatu ahal izango dugu, haur horrek adierazi nahi duena aipatuz, baina inoiz ez konparatuz. (Maestre, 2010).

Irakaslea ikasleentzat ereduak da; haurra sentikor eta ulerker ager daiteke, irakasleak ekoizpen plastikoekin bat egiten badu. Beharrezkoa da bere sentimenduez jabetzen eta sentimendu horiek adieraztea zuzena dela ulertzen laguntzea, batzuetan hitzik gabeko adierazpideetan bideratuz (Cabrera-Méndez, 2011). Garrantzitsua da, bai irakasleen aldetik, bai familiaren aldetik, haurraren sorkuntzak errespetatzea eta balioestea, baita berezotasuna eta naturaltasuna ere. Haurrak bere marrazkian zer sentitzen duen kontatzen du, inguratzen duen mundua, hautematen duen moduan, zuzentzen badiogu, gure ikuspuntutik egingo dugu, eta ez subjektuaren esperientzietatik, eta hori kaltegarria da gizabanakoarentzat. Haren askatasuna eta adierazpena mugatuko ditugu (Maestre, 2010).

Arestian aipatutako egileak ere ados daude marrazki bat egiterakoan haurrei askatasuna ematearekin:

Hezitzaileek beren ikasleei nahi dutena marrazten utzi behar diete, inposatu gabe eta beren erara egin dezaten utziz. Maisuaren esku-hartzeak eta proposamenak, askotan, dagokion adina baino lehen etapa aldatzea eragiten du beraz, baldintzapen goiztiarrak saihesteko, ariketak egokiak izan behar dira eta berdinen arteko sozializazioa erraztu, talde-lanak bultzatuz. Irakasleak eragin handia du haurraren nortasunean eta aurrerapenean, horregatik askatasun hori eman behar diegu (Luquet, 1927; Lowenfeld, 1972; Luçat, 1982).

Vygotskyk (1990) planteatzen du irakasleak espazio bat sortu behar duela irudimenaren eta errealtatearen artean. Oso garrantzitsua da irakasleek bi alderdi horiek sustatzen dituzten jarduerak egitea eta, batez ere, ikasleak aske uztea. Autore honek dio garuna, gure iraganeko esperientziak kontserbatzeko edo erreproduzitzeko gai izateaz gain, organo konbinatzailea ere bada, sortzailea; iraganeko esperientzien elementuekin arau eta planteamendu berriak berregiteko eta sortzeko gai dena. Konbinazioan oinarritutako giza garunaren jarduera sortzaile horri irudimena edo fantasia deitzen dio psikologiak. Irudimena,

jarduera sortzaile ororen oinarri gisa, berdin agertzen da bizitza kulturalaren alderdi guztietan, sorkuntza artistiko, zientifiko eta tekniko ahalbidetuz. Zentzu horretan, inguratzen gaituen guztia, kulturaren mundu guztia, naturaren mundua ez bezala, irudimenaren eta giza sorkuntzaren emaitza da, irudimenean oinarritua.

Perspektiba gaurkotuago batetik, Antonio Machonek (2009) dio hezitzaileen sekretua sormena eta ikaskuntza bateratzea izan behar dela. Helduak prozesu horiek ezagutu behar ditu eta adi egon behar da. Haurrari giro ona eta behar dituen bitarteko urriak eman behar dizkio prozesu horiek gerta daitezzen. Sternek (2014), *De la Semiología de la Expresión al dibujo infantil* liburuan, irakasleei ere zuzentzen da, ikusleen jarrera eskatzen die, Formulazioa garatzen eta eboluzionatzen den bitartean, hura ahalbidetzeko eta ez oztopatzeko gai diren pertsona gisa.

Azkenik, Ojedak eta Vazquezek (2014) ere argudiatu dute marrazkiak garen bezala adierazten laguntzen digula, adierazpen grafikoa baita. Marrazketaren bidez, ikasleek beren nortasuna, pentsatzeko eta izateko modua, emozioak eta sentimenduak adierazten dituzte beren sorkuntzaren bitartez, mundua ikusteko modu propioa baitute; horregatik, ez zaie marrazki mota inposatu behar, baizik eta beren irizpidearen arabera sortzera eta irudikatzerara motibatu behar dira. Marrazki bakoitza errespetatu behar da lan bakar eta errepikaezin gisa, non errespetuz eta zorroztasunez behatu behar diren alderdi motorrak, pertzepziozkoak, ideologikoak eta psikologikoak jokoan jartzen dira. Gainera, testuinguruak, familia-, eskola-, irakaskuntza- eta gizarte-eraginek esku hartzen dute, baita pertsonaren asmoek eta blokeoek, beldurrek, espazio zuriek eta isiltasunek ere (López eta Martínez, 2006).

Autore guztiek bat egiten dute dute haurrek marrazterakoan askatasuna behar dutela esanez, haien sormena mugatuta ez ikusteko helduen eraginaren ondorioz. Hala ere, horrek ez du esan nahi ezin dutela helduen orientaziorik edo motibaziorik jaso. Garrantzitsua da ere marrazki bakoitza errespetatzea, balioestea eta horrekiko interesa erakustea, umeei haien adierazpenak egiterakoan erosoago sentitzeko. Izan ere, helduok ikasleen ekoizpen grafikoa begirunez tratatzea ezinbestekoa da, umearikiko dugun harreman eta jarreraren adibidea baita.

### **3.2.2- Marrazkia komunikatzeko tresna gisa**

Marrazkia objektu edo irudi bat identifikatzea helburu duen komunikazio-tresna bat da, asmoak, gogo-aldarteak eta sentimenduak transmititzea ahalbidetzen duena. Horren bidez, haurrak errealitatea den bezala, ikusten duen bezala edo sentitzen duen bezala irudikatzea lortzen du. Askotan, marrazten duena subkontzientean grabatuta geratu zen bizitako

esperientzia baten emaitza izan daiteke. Berak idatziz esan nahi ez duena edo ezin duena adierazten du. Haurrak, irudi baten bidez, mezu bat transmititu nahi du. Nahiz eta askok ez diote marrazkiei duten balioa ematen (Muñoz-Rodríguez, 2019).

Gizakiok izaki sozialak gara, inguruko pertsonekin komunikatzeko eta harremanak izateko beharra dugu, gure ideiak, iritziak eta pentsamenduak transmititzeko. Hala ere, gizarte-trukea ez da pentsatzen edo sentitzen duguna transmititzeko bitarteko bakarra. Txikienen kasuan, marrazkia da ingurune fisikoan eta afektiboan gertatzen dena hitzik gabe adierazteko erabiltzen duten bitartekoetako bat, haien emozioak, ideiak, pentsamenduak eta desioak islatzeko aukera emanez (Puleo, 2012). Marrazketa faktore garrantzitsua da haurraren garapena sustatzeko, adierazpen grafikoak hazkunde mentala, psikomotorra eta emozionala ezagutarazteko aukera ematen baitio. Marrazkia haurren emozioen bideratzaile bat da (Muñoz-Rodríguez, 2019).

Marrazkiak adierazpide gisa duen garrantziak asko esaten digu haurraren emozioei edo sentimenduei buruz. Hori dela eta, marrazkietan sakontzen eta sortutako irudi bakoitzak umeentzat zer esan nahi duen galdetzen saiatu behar dugu, irudi baten bidez esan nahi digun hori deszifratu ahal izateko. Gure zeregina, irakasle garen aldetik, arteari tresna pedagogiko gisa eskatzen duen balioa ematea da, haurra bere sortzetiko gaitasunak eta egunerokoan ikasitakoak garatzen motibatzen laguntzeko; horrela, ikasgelan sartuz eta ikaskuntza esanguratsu baten partaide bihurtuz (Muñoz-Rodríguez, 2019). Aspalditik marrazkia modu berezia izan da haurren barmetasunean sakontzeko, bizi diren mundua nola ulertzen eta sentitzen duten jakiteko. Luqueten lanek (1927) eta Piageten perspektibak (1975) erakutsi zuten haurren marrazkiak ez dakarrela errealitate jakin baten kopia bat, baizik eta hurrek haien intereseko gai edo errealitate bat adierazten saiatzean, buruan eratzen dituzten irudikapen-elementuak adierazten dituela (Muñoz-Rodríguez, 2019).

Hitzezko hizkuntza arrazionaltasun maila handiko komunikazio-sistema da; marrazkiak, berriz, haurraren nortasuna adierazten du, inguratzen duen errealitatea eta irudimena interpretatuz (Sáinz-Martín, 2014). Marrazkiak, hezkuntza aktiboko metodo gisa, ekimena, bat-batekotasuna, asmakuntza, eskuzko trebetasuna eta dohain artistikoak garatzen ditu, egokitzapen soziala errazten du eta behatzeko gaitasuna handitzeko ahalmena du. Marrazkiaren behaketaren garapenetik abiatuta, gaitasun narratiboa, idazketa eta, azken batean, gaitasun literarioa garatzen dira; ondorioz, irakasleak adierazpen grafikoa sustatu behar du, ahozko eta idatzizko adierazpenarekin egiten duen bezala (Andaluziako CCOO Irakaskuntza Federazioa, 2010).

### 3.3- Irudien erabilera eskolan

#### 3.3.1- Ikusizko curriculum ezkutua

Ezkutuko curriculum bisuala hezkuntza-testuinguru batean modu inplizituan hizkuntza bisualaren bidez transmititzen diren edukien multzoa da. Ezkutuko curriculumaren lehen helburua kulturalki onartuta edo ondo ikusita ez dagoena iraunaraztea da, maila esplizitu batetik heltzen zaiona: klase sozialak, generoa, boterea, erlijioa... (Acaso eta Nuere, 2005). Eskola-erakundearen barruan, mezu kultural esplizituak edo ez hain esplizituak emateaz gain, sozializazio-prozesuen bidez ezkutuko curriculum bat sortzen da, eskola-jarduerak gidatzen eta egituratzen dituzten balioak, ohiturak, jokabideak, sinesmenak... transmititzen dituena. Horrela, genero-alderdiekin, etniarekin, itxura fisikoarekin eta abarrekin zerikusia izan dezaketen estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioak "ezkutuan" transmititzen dira. (Cisterna, 2002).

Genero-aurreiritziak ikusizko kulturaren bidez transmititzen denaren adibideak dira. Egunez egun, hainbat komunikabidetako irudi asko ikusten ditugu, gizarteak sortu dituen genero-desberdintasunak argi eta garbi erakusten dituztenak. Gauza bera gertatzen da haurren inguruko irudiekin, bai normalean irakurtzen dituzten ipuinenak, bai ikasgeletako ornamentazioaren parte diren argazki eta marrazkienak. Horietan adibidez, agerikoa da zeintzuk dira mutilei ezartzen zaizkien koloreak eta zeintzuk neskei baita ezaugarri fisikoak eta janzkera ere. Irudikapen horiek eragina dute inguruan dutena interpretatzerakoan, mundua ulertzean eta gizarteratzean (Palacios 2006). Haurrak inguratzen dituzten irudi horiek errealitatearen irudikapen estereotipatuak dira, ez bakarrik estetikoki edo plastikoki, baita maila kultural eta ideologikoan ere. Hala ere, haien presentzia eta transmisioa egitate bat izateak ez du esan nahi ezer egin ezin dugunik edo erabat saihestezina denik. Hain zuzen ere, haren presentziaren jakitun izan beharra dago, haren inguruan jardun ahal izateko eta gizartean sortutako karga horiek guztiak gutxienez landuak izan daitezen saiatzeko (Cisterna, 2002).

Buckinghamek (2005) dioen moduan, haurrak ez dira berberak, telebistan, filmetan eta jolasetan, besteak beste, ematen diren mezuen eraginagatik eta errealitate hori bere sorkuntzetan ere islatzen da. Haurren ikusizko kultura, komunikabideetan ez ezik, eskolan ere oso ohikoa da (testuliburuetan, ipuinetan, gelako irudietan...). Esan dezakegu bere ingurunea osatzen duten irudi horiek bere eskemen parte izatera igaro direla, eta horien gehiegikeriarekin estereotipo plastikoa eratzen dela. Beraz, komunikabideen bidez ikusten dituzten irudiak beren marrazkietarako eredu gisa erabiltzen dituzte.



Aurretik aipatu den bezala, marrazkia adierazpide bat izateaz gain, ezagutza- eta komunikazio-bide bat da, eta kultura-ingurunearekin dugun harremana sinbolizatzen du. Palaciosen arabera (2006), hurren marrazkietan kultura bisualaren agerpena, haur bakoitzaren ezaugarri pertsonalen araberakoa izango da. Marrazkiaren bidez, haurrek beren ikusizko munduak sortzen dituzte, eta bertan hainbat gai sortzen dira; horien artean, ikusizko kulturatik datorrena dago.

Ikastetxe eta prestakuntza-zentro guztietan ikusizko irudikapenak daude, korridoreak, sarrerak eta beste eremu komun batzuk apaintzen dituztenak. Bada, irudi horiek informazio asko ematen dute eta azkenean ezagutzak legitimatzen dituzte, hau da, ontzat hartzen dena inplizituki transmititzen dute. Horretaz gain, irakasle batek bere diskurtsoa eraikitzeko aukeratzen dituen irudiak, ezkutuko curriculum bisual gisa ere funtzionatzen ari dira (proiektatutako aurkezpenak, bideoak, besteak beste). Ikusizko hizkuntzaren bidez, eskola-erakundeek helduarorako prestatzen gaituzte eta, modu inkontzientean, ikasleek hainbat balio onartzen dituzte, modu esplizituan transmitituko balira onartuko ez lituzketenak (Acaso eta Nuere, 2005).

Ikusizko arteen ikusizko forma guztiak pertsonen ideien, sinesmenen eta jarreraren adierazpenak dira. Gizabanakoen eta taldeen identitateak erakusten dituzte, baina, aldi berean, identitateak osatzen dituzte (Freedman, 2002). Horregatik, benetan beharrezkoa da haurrak prestatzea, ikusten duten ikusizko kulturaren ikuspegi kritikoa izan dezaten. Horretarako, irakasleen ardura horretaz jabetzea eta ikusizko kulturari garrantzia ematea da, inguruan ditugun irudi guztiak aztertzen eta horri buruz hausnartzen. Modu horretan, ikasleak konturatuko dira inguratzen gaituena beti ez dela ondo dagoena eta hori kritikatzeko tresnak eskuratuko dituzte.

### **3.3.2- Emozioen lanketa irudien bidez**

Gaur egun mundu bisual batean bizi gara, non irudiak gero eta gehiago agertzen diren gure bizitzan, eta gure kulturaren eta sozializazioaren parte dira. Teknologia berrien gorakadak lagundu du irudiak azkar eta modu globalizatuan munduan zehar zabaltzen; ondorioz, gaur egun irudiez inguratuta gaude (Caja, Berrocal eta González 2002). Irudiaren bidez, hainbat mezu helarazi eta jaso ditzakegu, bai arrazoiari zuzendutako informaziozkoak, bai sentimenduei zuzendutako emoziozkoak. Hori kontuan hartuz, adierazpen bisualak eskolan emozioen lanketa egiteko oso erabilgarriak dira.

Ikastetxean emozioak lantzeko hainbat baliabide edo material didaktiko aurki ditzakegu, irudiekin estuki lotuta daudenak. Adibidez, zinemaren eta literaturaren bidez,

adimen emozionaleko trebetasunak eskura daitezke, norberaren eta besteen ideia bat eratzen laguntzeko, gizartean bizitzeko prestatuz. Era berean, ipuinek eta filmek beren irudimena eta fantasia, jakin-mina eta pentsamendua garatzen, beren emozioak eta sentimenduak biziarazten eta mundu liluragarri eta irudimenezkoetara eramaten laguntzen diete. Literaturaren eta zinemaren mundua haurraren sistema emozionala eskuratzeko modu bat da, eta lotura estua du mundu errealekin, pertsonen bizitzarekin. Ipuinek zein filmek laguntza eskain diezaiekete hurrei konpondu beharreko arazo bat badute, identifikatuta sentitzen direlako eta empatia maila batean garatzen dutelako (Guerra, 2014). Gaur egun baditugu filmak zein ipuinak emozioak lantzeko zuzenduta daudenak, eta Haur eta Lehen Hezkuntzan asko erabiltzen direnak. Horietako ospetsuenetarikoa *Inside Out* (2015) filma eta *Koloretako mustroaren* (2015) ipuina dira. Bi baliabide berri horietan irudiak agertzen dira non emozio ezberdinak, marrazki, kolore edota ikur zehatzekin lotzen direnak eta hurrek eredutzat hartzen dutenak haien irudikapenak egiterakoan.

Hezkuntza emozionala lantzeko beste egile batzuk egindako material didaktikoak ere topa ditzazkegu emozioak identifikatzeko, adierazteko eta erregulatzeko aukera ematen dituztenak. Etxean zein gelan emozioak lantzen dituzunean, haurrak motibatuago egotea lortzen dugu, eta positiboki laguntzen diegu garapen intelektualean. Garrantzitsua da ikasleek ezagutza akademikoak eskuratzea, beste ikaskuntza mota batzuk ahaztu gabe, hala nola sentimenduen kudeaketa. Ikasleei beren emozioak identifikatzen eta txikitatik maneiatzen irakasteak empatia sortzeko eta gatazkak konpontzeko aukera ematen die. Badago web-orri bat Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta eta bertan, hezkuntza emozionala lantzeko hainbat fitxa eta jolas eskuragarri daude ([ikusi 2. eranskina](#)). Horietan ere ikusgarri da irudien erabilera egiten dela emozioak irudikatze, ulerkuntza prozesua errazteko asmoarekin. Gaur egun, *emojiek* presentzia handia dituzte teknologia berrietan eta hurrek, oso barneratura dituzte. Hori dela eta, *emojia*k material didaktiko gehienetan erabiltzen diren eredu argiak dira sentitzen dutena adierazteko.

Egia da irudiak gai abstraktuen ulerkuntza errazteko tresna bikaina dela baina horren alde negatiboa, irudi horiek haurren marrazkietan duten eragina da, irudi estereotipatuak bihurtzen direlako. Aurretik aipatu den bezala, autoreek esaten duten marrazterakoan hurrek askatasuna izan behar dutela, influentziarik izan gabe baina ikusten denez, teoria hori ez dator bat errealitatearekin, patroi berdinak jarraitzen dituztelako.

## 4. METODOA

Atal honetan, Gradu Amaierako lan honetako ikerketa aurrera eramateko jarraitu den metodoa aurkezten da, eta hurrengo azpiatal hauen bitartez azalduko dira: datuak jasotzeko aukeratu den testuingurua, ikerketaren parte-hartzaileak, prozedura eta azkenik, erabilitako ikerketa tresnak.

### 4.1- Helburuak

Marko teorikoan ikusi den bezala, marrazkia haurrek barruan duten adierazpidea da baita komunikabide tresna bat ere. Horren bidez, haien nortasuna, pentsamenduak, interesak, sentimenduak... islatzen dituzte. Gainera, haurren marrazkietan modu inplizituan jasotzen duten informazioa plasmaturik agertzen da. Beraz, marrazkiei esker umeei buruzko informazio gehiena lor daiteke. Hori dela eta, GrAL honen abiapuntua hori buruzko ikerketa-galdera batzuk izan ziren, oinarri izan zirenak ondorengo helburuak ezartzeko:

**Ikerketa galderak:** zer nolako garrantzia/erabilera ematen dio eskolak Lehen Hezkuntzako ikasleen marrazkiei? Haurrek marrazkien bidez hitzekin baino errazago espresatzen dituzte kontzeptu abstraktuak (ideiak, emozioak, bizipenak...)? Marrazkia bada umeen iritziak eta ideiak ezagutzeko baliabide egokia?

#### Helburuak:

- 1) Marrazkiaren erabileraren errealitatea behatzea eskolan, Lehen Hezkuntzako irakaslegoaren ikuspuntutik.
  - 1.1- Marrazkiaren helburu pedagogiko edo didaktikoak identifikatzea.
  - 1.2- Marrazkia Lehen Hezkuntzan denborapasatze hartzen den baieztatzea edo ezeztatzea.
  - 1.3- Marrazketa-proposamen didaktikoak eta hauen ebaluazioa nola egiten duten aztertzea.
  - 1.4- Irakasleek marrazkiaren emaitzari ematen dieten erabilerak ezagutzea.
- 2) Marrazkiaren erabilgarritasuna ulertzea, Lehen Hezkuntzako ikaslegoaren ikuspuntutik.
  - 2.1- LHko ikasleen marrazkiarekiko jarrera eta zaletasuna ezagutzea.
  - 2.2- LHko ikasleen marrazketari buruzko iritzia jasotzea.
  - 2.3- Ikasleen hitzezko narrazioak eta narrazio bisualen arteko desberdintasunak identifikatzea.

#### 4.2- Ikerketaren testuingurua

Ikerketa San Prudentzio ikastetxean burutu da, Gasteiz hiriburuan kokatuta dagoena, Lakua auzoan, hain zuzen ere. Auzo horrek aldi berean, 4 zonaldetan banatzen da: Lakua-Arriaga, Lakuabizkarra, Ibaiondo eta Lakua-Sansomendi. Guztira, 50.000 biztanle inguru biltzen dituzte. Ikastetxeak, itunpeko irakaskuntza-kooperatiba laikoa eskeintzen du Haur Hezkuntzatik Batxilergoa arteko eskola-etapak arte.

Gaur egun, 1249 ikasle eta 100 langile baino gehiago daude, etengabeko formakuntzan daudenak eta hezkuntza-zerbitzu hoberenak eskaintzeko prest. Maila bakoitzeko 3 lerro daude (guztiak hirueledunak), gela bakoitzean, batez-besteko, 25 ikasle egonik. Kasu honetan, ikerketa 3. mailan aurrera eraman da.

#### 4.3- Parte-hartzaileak

Unibertsitateak eskaintzen duen azkenengo praktikaldian burutu da ikerketa, 2022ko urtarrila eta apirila bitartean. San Prudentzio ikastetxeko LH 3.C eta 3.B gelako ikasleek parte hartu dute, guztira 49 ikasle 9-10 urtekoak. Horretaz gain, ikastetxe ezberdinetako Lehen hezkuntzako irakasleek ere esku hartu dute (55 irakasle).

Ondorengo taulan, ikusgai daude jarduera ezberdinetako parte-hartzaileak eta ezaugarri esanguratsuenak:

IKERKETA TRESNA MOTA	PARTE-HARTZAILEAK	
	LHko IRAKASLEAK	LHko IKASLEAK
Adierazpen grafikoa (marrakia)	0	25
Hitzezko adierazpena (elkarrizketak, idatziak)	0	20
Galdetegia	54	49

1. taula: parte-hartzaileen datuak

Guztira, 103 parte-hartzailek esku hartu dute ikerketan, 49 ikasle (kontuan izanda galdetegiaren ikasle askok beste ekintzetan ere parte hartu dutela) eta 54 irakasle.

Irakasleei dagokienez, 19 ikastetxe ezberdinetako irakasleek parte hartu dute: Ramon Bajo, Kurutziaga, Kirikiño, Inmaculada Concepción, Presentación de María, Abendaño, Angel Ganivet, Urkide, Niño Jesús, Virgen de Oro, Aita Orbiso eta López de Guereñu ikastetxeko irakasle batek, Zabalzana ikastetxeko 3 irakaslek, San Ignazioko 7k, San Prudentzioko 9k, Aranbizkarrako 8k, J.M. Barandiaraneko 2k, Sagrado Corazón-eko beste 2k eta San Viatorreko 7k. 4 irakaslek ez dute ikastetxea zehaztu. Irakasle horietatik, 27 irakaslek (%50,9) Lehen Hezkuntzako bi zikloetako irakasleak dira. 16 irakaslek (%30,2) Lehen Hezkuntzako 1. zikloan daude eta 10ek (%18,9) 2. zikloan. Badago irakasle batek irakaskuntza zikloa zehaztu ez dutenak.

Gehienek, 24 irakaslek (%44,4), 10 urte baino gehiago daramatzate irakasle lanetan. 7 irakaslek (%13) 6-9 urte inguru, 10ek (%18,5) 4-6 urte inguru, 8k (14,8) urtebete eta hiru urte artean eta 5 irakasleentzat (%9,3), lehenengo urtea da irakasle gisa.

#### **4.4- Ikerketaren prozedura**

Ikerketaren alderdi empirikoa burutzeko, prozedura kualitatiboa zein kuantitatiboa erabili dira:

Prozedura kualitatiboaren barnean, ikasleen idatzizko definizioak eta adierazpen grafikoak (marrazkiak) erabili dira, hitzen bidezko narrazioak eta narrazio bisualen arteko ezberdintasunak identifikatzeko. Horretarako, 3 ikerketa-fase ezberdinak praktikan jarri dira:

- 1.Fasea - Hasierako honen helburua ikasleen hitzen bidezko adierazpen emozionala neurtzea zen, emozioen identifikazio eta definizioen bidez: lehenik eta behin, ikasleei eskatu zaie patioan daudenean sentitzen dituzten emozioak ahoz aipatzea. Ondoren, identifikatu dituzten emozio horien zerrenda orri batean definitzen saiatu dira. Behar bereziak dituen ikasle baten kasuan, jarduera hau egokitu zaio berak ere parte hartu ahal izateko. Horretarako, piktogramak erabili dira irakasle horrek emozioak hobeto identifikatzeko, irudia erabiliz kontzeptuen adierazpena bideratzeko.
- 2. Fasea - Bigarren fase honetan, irudiaren bidezko adierazpen emozionala aztertu nahi izan da. Horretarako, aste batean zehar, jolastokira kolorezko klarionak eraman dira eta ikasleen eginkizuna, momentu horretan sentitzen zutena marrazki batekin bertan plasmaztea izan da, patioko zorua euskarri moduan erabiliz.

- **3. Fasea** - Azken fasean aurreko bi jardueren emaitzak alderatu dira, hau da, hitzezko adierazpena (ikasleek idatzitako definizioak) eta adierazpen grafikoen artean egon diren aldeak. Ikasleek hausnarketa hori egin dezaten, patioan marraztutako marrazkiei atera zaizkien argazkiak erabili dira. Ikasleek haien iritziak eman dituzte, ikasgela osoarekin partekatuz eta azkenik, ondorio batzuk atera dira. Ondorio horiek, ikertzaileak idatziz jaso ditu.

Alde kuantitatiboari dagokionez, galdetegiaren bidez ikasleen eta irakasleen marrazkien erabileraren buruzko ikuspuntuak jaso dira. Horretarako, ikerketa honen hipotesi, galdera eta helburuetan oinarrituz, galdera batzuk prestatu dira, marrazkiarekiko irakasle eta ikasleen iritziak, interesak eta jarrerak ezagutzeko asmoarekin.

#### **4.6- Ikerketa tresnak**

Aurretik azaldutako prozedura aurrera eramateko ikerketa tresna batzuk erabili dira, bi multzotan bereizten direnak: alde batetik, ikasleen adierazpen emozionala jasotzeko diseinatu diren tresnak eta bestetik, ikasle eta irakasleen iritziak, interesak eta jarrerak identifikatzeko tresnak.

**a) Ikasleen emozio-adierazpena:** ikerketa honen datu gehienak ikasleen ekoizpenetik atera dira eta hurrengo tresnekin lortu dira:

- **Testu idatziak:** testu gisa egindako emozioen definizioak jaso dira eta horrez gain, hausnarketa egiterakoan, haiek aipatutako iritziak eta ondorioak ikertzaileak idatziz jaso ditu.
- **Marrazkiak:** ikerketa honetan umeak egindako marrazkiei garrantzi handia eman zaie aurretik aipatu den moduan, komunikabide tresna gisa oso erabilgarria delako. Haurrak lehen trazua menperatzen duenetik, bere sentimendu eta emozioak islatzen ditu, eta horiei irtenbide landua ematen die. Marrazketa, beraz, tresna baliagarria da haurren ikuspegiari zentzua emateko (Eisner, 2004). Patioan egindako marrazkiei esker, une horretan sentitu dutena irudikatu dute, ondorengo hausnarketarako baliagarria izanez. Parte-hartzaileen adierazpen grafikoak sustatzeko, patioan klarionekin egindako marrazkiak erabili dira.

- **Argazkiak:** emaitza grafikoen datuak jasotzeko erabili den ikerketa-tresna argazkigintza da. Argazkiak baliabide oso egokiak dira narratibak edota egoerak sortzeko (Bautista, et al., 2018). Hori dela eta, ikasleek eskuz egindako irudiak ikertzaileak egindako argazkien bidez baliabide digital moduan gorde eta sailkatu dira, adierazpen grafikoaren analisisa egin ahal izateko.

**b) Galdetegiak:** aurreko ikerketa-tresnaz gain, ikasle eta irakasleen iritziak, interesak eta jarrerak jasotzeko bi galdetegi erabili dira. Lortutako datuak kuantitatiboak izan arren, erantzunak modu kualitatiboan ere interpretatu dira. Galdetegiak aukera egingarriena dira eskatzen den informazioa lortzeko eta informazio hori kuantifikatu, grafikatu eta interpretatu ahal izateko (Abundis, 2016). Kasu honetan, ikerketa aberasteko, bai irakasle bai ikasleen ikuspuntua kontuan hartu da, hurrengo gaiak kontuan hartuz:

LHko IKASLEENTZAKO GALDETEGIA	LHko IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola</li> <li>- Hezkuntza maila</li> <li>- Marrazkiarekiko zaletasuna</li> <li>- Marrazketaren maiztasuna</li> <li>- Marraztearen arazoak</li> <li>- Marrazkien gaiak eta jarduera motak</li> <li>- Marrazkien balorazioa</li> <li>- Marrazketaren sustatzailea/irakaslea</li> <li>- Marrazketarekiko interesa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola</li> <li>- Zikloa</li> <li>- Esperientzia irakaskuntzan (urteak).</li> <li>- Marrazkiari buruzko formakuntza</li> <li>- Marrazkia baliabide pedagogiko gisa</li> <li>- Marrazketaren maiztasuna</li> <li>- Marrazkien helburuak</li> <li>- Marrazteko proposamenak</li> <li>- Marrazkien ebaluazioa eta irizpideak</li> <li>- Marrazketaren sustatzailea</li> <li>- Marrazketarekiko interesa</li> <li>- Marrazketaren inguruko ezagutza</li> </ul>

2. taula: galdetegietan jorratutako gaiak

## 5. EMAITZAK

GrALaren puntu honetan aurreko ikerketa-tresnekin lortu diren emaitzak adierazi eta interpretatuko dira. Emaitzen analisia bi atal nagusitan banatuko da: lehendabizi, irakasleriaren ikuspuntua aztertuko da, egindako galdetegiaren erantzunez baliatuz eta ondoren, ikaslegoaren ikuspuntua analizatuko da haien adierazpenak eta galdetegiaren erantzunak erabiliz.

### 5.1. Irakasleriaren ikuspuntua

Datuen analisiarekin hasteko, marrazkiaren erabilerari buruzko Lehen Hezkuntzako irakasleen iritzia jakin nahi izan da eta horretarako, irakasleei pasatutako galdetegiaren erantzunak jaso dira:

Hasteko, magisteritza egin ostean irakasleek arte plastiko edo marrazkiari buruzko formakuntza osagarria jaso duten ezagutu nahi izan da, eta 49 irakaslek (%90,7) ezeztatu dute bakarrik 5ek (%9,3) formakuntza osagarria jaso dute. Horrekin lotuta, 39k (%72,2) onartu dute ez dutela marrazkiaren baliagarritasunei eta onurei buruzko ezagutza nahikorik baina 15k (%27,8) berriz, bai. Datu horiekin baieztatu daiteke irakasle gehienek arte hezkuntzako baliabideak erabiltzen dituztela horretarako formakuntza edo ezagutza nahikorik izan gabe eta horren ondorioz, ikasleek ez dute arlo horretako ikaskuntza esanguratsurik jasotzen eta irakasgaia ez da behar bezala baloratzen.

Klase orduetan marrazketa proposatzen den jarduera oso ohikoa da. Irakasleen %55,6a hau da, 30 irakaslek, astero proposatzen diete, beste 8k (%14,8), ia egunero eta noizbehinka, 6 irakaslek (%11,1) hilean behin edo bitan proposatzen diete eta 2 irakaslek (3,7) bakarrik ez diete ia inoz ez marrazketarik proposatzen. Nahiz eta horren inguruko ezagutza eskasa izan, ikus daiteke marrazkigintza oso maiz erabiltzen dela ikasgeletan eta irakasleen %79,6ek helburu pedagogiko gisa erabiltzen dutela baieztatu dute hau da, ikasketa-tresna gisa erabiltzen dutela. Irakasleek marrazkigintza proposatzen dutenean, horren atzean helburu bat badago. Gehienek (%74,1) marrazketa denbora librean egiteko ekintza gisa proposatzen dute, %70,4k ikasgai batean ikasitakoa irudi bidez adierazteko erabiltzen dute marrazketa. Beste %70,4k, gela edo eskola apaintzeko helburuarekin, %44,4k klasean ikusitakoa ulertu den jakiteko eta umeen ikuspuntuak, iritziak edota bizipenak jasotzeko. %37k marrazkiak umeen koaderno eta material didaktikoen estetika hobetzeko erabiltzen dituzte eta %11,1k beste helburu batzuk aipatu dituzte baina guztiek, klasean emandako teoria osatzeko edo hobeto ulertzeko helburuarekin daude lotuta. Datu horiekin behatzen da nagusiki, marrazketa denbora libreak betetzeko jarduera dela baita ikasketa-prozesua errazteko tresna



ere. Oraindik ez dira gehiengoak marrazketa ikasleen arlo pertsonala edo emozionala ezagutzeko erabiltzen dutenek eta horren arrazoia, gai hori ez dela ikastetxeetan hainbeste lantzen izan daiteke.

Marrazkigintza-proposamen motari dagokionez, irakasleen erdiak baino gehiago (%56,6) marrazki erdi gidatuak proposatzen dizkiete hau da, aurretik gai orokor bat edo material zehatzak aukeratzen ditu eta ikasleek horren arabera haien marrazkiak egiten dituzte. %35,8k umeek gaia zein materialak aukeratzea uzten die, marrazketa librea ahalbidetuz. Gutxiengoek (%7,5) marrazkiak gidatzen dituzte gaia eta materialak finkatuz. Plastika orduetan, eduki edo teknika zehatzak irakasten dutenez, irakasleek marrazki motak erdi gidatzen dituzte ikasle guztiek irizpide berdinak jarraitzeko baina orokorrean, askatasuna uzten zaie eta horrek, ikasleentzat jarduera erakargarria izatea eragiten du. Irakasle askok adierazi dute umeak haien kabuz marrazketan trebatzen direla, beste batzuk onartu dute haien laguntza ere jasotzen dutela eta oso gutxik, aipatu dute haien irakasten dietela. Zehaztu dute, batez ere arte irakasgaietan, teknika ezberdinak irakasten dituztela baina orokorrean, haien kabuz egiten dute nahiz eta aholku txikiak eman marrazketa bideratzen laguntzeko, erantzun honetan ikusten den bezala: "unearen arabera. Marrazki librea bada aske dihardute. Erdi gidatua bada (Arte hezkuntza uneetan) proposamen zehatzagoak helarazten dizkiet". Marrazterakoan askatasuna izatea funtsezkoa da hala ere, irakasleen laguntza ere jaso dezakete betiere bere ideak eta egiteko modua inposatu gabe.

Marrazketaren ebaluazioari helduta, irakasleen %33,3k ikasleen marrazkiak ebaluatzen dituzte eta horretarako, ebaluazio-irizpide batzuk jarraitzen dituzte: %77,7k marrazketa prozesuan ahalegindu izana baloratzen dute, %57,9k emaitzaren txukuntasuna eta originaltasuna kontuan hartzen dute, %52,6k klasean landutako eduki teorikoak marrazkian agertzeari garrantzia ematen diote eta %26,3k arte plastikoaren edukiak menperatzeari (kolorea, eskalak, konposizioa...). Horretaz gain, irakasleen adierazi dute marrazketa-teknika menperatzeari ez diotela garrantzirik ematen eta %5,3k beste ebaluazio-irizpide batzuk erabiltzen dituztela adiera dute baina, horien artean, ahalegina, originaltasun eta txukuntasuna errepikatzen da. Irakasleen formakuntza ezarekin lotuta, ez dituzte tresna nahikorik marrazkiak nola ebaluatu behar diren ezagutzeko hori dela eta, gehienek ez dituzte kalifikatzen edo haien ebaluazioak subjektiboak dira hau da, haien irizpide edo gustuen arabera baloratzen dituzte.

Irakasleen askok (%90,6) marrazketa LHko ikasleentzat jarduera motibagarri eta erakargarria dela uste dute baita baliabide pedagogiko erabilgarria ere (%96,3), horrek azaldu dezake zergatik proposatzen duten hainbestetan marrazketa. Bi tauletan irakasleek

baieztapen horiei emandako argudioak kategorietan sailkatu dira ([ikusi 4. eranskina](#)) horri esker, ikus daiteke askok aipatu dutela marrazketa motibaria dela ikasleentzat barruan daukatena adierazi dezaketelako eta bestalde, baliabide pedagogiko erabilgarria dela adierazpen grafikoen bidez umeekiko informazioa jaso daitekeelako. Badirudi teorikoki marrazkien garrantzia umeengan ezagutzen dutela baina aldi berean, ez direla praktikara eramaten ausartzen eta gehienek, ez diote erabilera hori ematen.

## 5.2. Ikasleriaren ikuspuntua

Irakaslegoaren ikuspuntua ezagutzeaz gain, marrazketaren erabileraren errealitatea ikasleen ikuspuntutik ere ezagutu nahi izan da horretarako, haien iritziak eta adierazpenak kontuan hartu dira.

Marrazketarekiko ikasleek dituzten iritziak ere ezagutu nahian galdetegi bat ere egin zaie. Horretan oinarrituz, marrazketa orokorrean gustatzen den jardura da, 45 ikaslek (%91,8) adierazi duten moduan eta 4 ikasleri (%8,2) berriz, ez zaie marrazketa gustatzen. Oro har, hurrei marraztea gustuko dutela froga daiteke, haientzat komunikatzeko edo adierazteko modu errazena delako. Gustuko ez duten portzentaje txiki horri marrazten ez dakitelako izan daiteke edo aurretik marrazketarekin esperientzia txarrak izan dituztelako.

Maiztasunari dagokionez, ikasleen %40,8k egunero marrazten dute, %30,6k astero, %20,4k noizbehinka, %6,1ek hilabetero eta %2ek ez dute inoiz ez marrazten. Beraz, ikasleen emaitzak ikusita, adierazgarria da ere marrazketa haien eguneroko bizitzan dagoen jardura dela eta garrantzia ematen diotela. Gehienek denbora libre dutenean (%64,6) edo aspertuta daudenean (%41,7) marrazten dute. %36,6k adierazi dute norbaiti oparitzeko marrazkiak egiten dituztela beste batzuk, hobeto marrazten ikasteko (%27,1), apunteak, gela edo eskola apaintzeko (%16,7) edo ikasitakoa hobeto ulertzeko (%14,6). Gutxiengoek (%12,5) marrazketa erabiltzen dute mezuak, bizipenak edota sentimenduak adierazteko. Irakasleek adierazi duten bezala, ikasleek marrazketa gehien erabiltzen dute tarte librean dituztenean hala ere, honetan ere ikus daiteke haien barne-egoera adierazteko ez dutela erabiltzen. Haientzat ezezaguna da marrazkien bidez haien bizipenak edo sentimenduak adierazi ahal dutela, erabilera hori ez diotelako nahita inoiz eman edo modu inkontziente batean egiten dute horren esanahiaz jabetu gabe, behar den lanketa eman ez zaiolako.

Marrazki motaren inguruan ere galdetu zaie eta ia guztiek (%91,8), marrazki librean egiten dituzte (nahi dutena marrazten dute) baina beste batzuek (%8,2), besteek esaten dietena marrazten dute. Adierazi duten moduan, askok (%45,8) nahiago dute haien kabuz

nahi dutena marraztea eta beste batzuk aldiz (%27,1), irakasleak gai bat proposatzea hobesten dute. Inork ez ditu beste irudi edo marrazki bat kopiatzen baina %35,4k hori nahiago dute eta beste %16,7ei taldeka marrazkiak egitea gustatzen zaie. Datuek erakusten duten moduan, haurrek marrazterakoan askatasuna nahiago dute, haien ideiak eta pentsamenduak azalertzeko momentua delako. Ohikoa denez, blokeoak ere agertzen dira eta kasu horietan, irakasleen laguntza edo kopiaketara jotzen dute, normalean ikasleek interneta erabiltzen dute inspirazio-iturri gisa. Askatasunarekin lotuta, haurrek ere indibidualtasuna bilatzen dute marrazkiak egiterako orduan, haien buruarekin konektatzeko baliabide bat delako.

Erdiek baino gehiago (%53,1) haien kabuz ikasi dute marrazten, %22,4ei guraso edo senideren batek irakatsi die, %16,3ei lagun bategi eta %8,2ei irakasle bategi. Marrazketak haurren garapenarekin lotura handia du beraz, normalean haien kabuz ikasten dute bakoitzaren garapen-prozesuaren arabera hala ere, helduek aholkuren bat edo hobetzeko proposamenak eskaintzen dizkiete. Gehienek kasuan (%81,3) helduek baloratzen dituzte haien marrazkiak hau da, kontuan hartzen dute umeen lana eta horrek, umeen autoestimoan eragin positiboa izango du bere esfortsua baloratzen dela ikusiko dutelako. Galdetegiaren emaitzen adierazpenei amaiera emanez, irakasle gehienek bezala, ikasleek %79,6ek adierazi dute haien marrazketa jarduerak motibagarria edo erakargarria dela. Beraz, lehen aipatu den moduan, marrazketa oso presente dago umeen egunerokotasunean eta haien marrazketa, onura handiak ekartzen ditu hori dela eta, egunero praktikan jartzeko motibazioa daukate.

Ikerketaren alde kualitatibora pasatuz, ikasleei eskatu zaie patioan nola sentitzen diren marrazki bategi adieraztea beraz, atal honetan adierazpen grafiko horien analisisa egingo da. 5 egunetan guztira 37 marrazki egin dituzte, guztiak figuratiboak, ikasleek egoera erreala adierazten saiatu dira eta marraztutako figurak identifikagarriak dira. Horietatik, giza-itxura dituzten 25 marrazki daude eta horiek, beste 3 azpikategorietan sailka daitezke: 17 marrazki autorretrato isolatuak dira hau da, haien burua marraztu dute. 6 autorretrato lagunekin, haien burua lagun bategi marraztu dute eta geratzen diren beste bietan, beste pertsona bat marraztu dute. Ikus-kulturaren eragina dela eta, sentitzen dutena adierazteko eskatzerakoan, umeek irudi batzuk dituzte barneratuta emozio bakoitza irudikatzeke. Hortaz, marrazki gehienak giza-itxura dituzte emozioak aurpegiarekin (*emojia*) erlazionatzen baitituzte. Askotan ere, haur txikiei gehiago kostatzen zaie bera ez den beste norbait irudikatzea eta horrek azaldu daiteke autorretrato isolatuen maiztasun handiagoa.

Ikasle batzuk haien barneko egoera objektu edo elementu ezberdinekin adieraztea erabaki dute, eta horrelako beste 12 marrazki daude. Erabili dituzten objektu/elementuen

adibideak hurrengoak dira: loreak, hondartza, itsasoa... lasaitasuna adierazteko, azterketak edo horren kalifikazioak urduri daudela azaleratzeko, emakumeen ikurra harrotasuna plasmatzeko modu gisa, Ukraniako bandera, pistola, katua, antzerkia... beste elementuen artean. Marraztu dituzten elementuetan adierazgarria da nola haien inguruan gertatzen diren egoerak eragina dutela haien gogo-aldartean. Horren adibidea Ukraniako guda edo emakumearen eguna da haien adierazpenetan gai horiek islatuta ikusten direla.

LHko ikasleen marrazketari buruzko iritzia eta horrekiko jarrera eta zaletasuna jasotzeaz gain, ikerketaren beste helburu bat ikasleen hitzezko narrazioak eta narrazio bisualen arteko desberdintasunak identifikatzea da. Horretan oinarrituz, ezagutu den lehendabiziko desberdintasuna adierazitako emozio-kopurua izan da. Emozioak definitzeko jardueran ikasleek bakarrik 8 emozio aipatu dituzte, haientzat ezagunenak direnak beraz, 8 horiek definitzen saiatu dira. Haien adierazpen grafikoan argazkiak ikusterakoan aldiz, 14 emozio ezberdin identifikatu dituzte. Horrek egiaztatzen du marrazkiekin errazago eta modu argi batean irudikatzen dutela komunikatu edo adierazi nahi dutena. Marrazketaren bidez modu naturalean adierazten dute buruan daukatena eta haien ohartu gabe, emozio gehi identifikatzeko gai izan dira. Askotan hitzezko adierazpenetara jotzen dugu, gehien ezagutzen ditugun komunikazio-tresnak direlako baina haurren kasuan, hitzezko adierazpenekin mugatuta sentitzen dira oraindik menperatzen ez dutelako eta urteekin eskuratzen den gaitasuna delako. Hurrengo taulan ikus daiteke hitzekin eta marrazkiekin aipatutako emozio ezberdinak:

HITZEKIN	MARRAZKIEKIN
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Poza</li> <li>● Tristura</li> <li>● Beldurra</li> <li>● Haserrea</li> <li>● Asperdura</li> <li>● Nekea</li> <li>● Nazka</li> <li>● Lasaitasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Poza</li> <li>● Tristura</li> <li>● Maitasuna</li> <li>● Lasaitasuna</li> <li>● Urduritasuna</li> <li>● Bakardadea</li> <li>● Harrotasuna</li> <li>● Intseguritatea</li> <li>● Beldurra</li> <li>● Kezka</li> <li>● Haserrea</li> <li>● Nekea</li> <li>● Asperdura</li> <li>● Blokeoa/Galduta</li> </ul>

3. taula: jardueretan aipatutako emozio ezberdinen zerrenda

Aurretik esandakoaren harira, ikasleei zaila egin zaie emozioak definitzeak eta egindako definizioak oso eskasak eta sinpleak izan dira “poza da pozik gaudenean”. Horretaz aparte, gehienek erabilitako hizkuntza gaztelania izan da, euskaraz oraindik eta zailagoa egiten zaie gehiegi kontrolatzen ez dutelako “nekea es cuando alguien está cansado”. Definizioetan oso ohikoa izan da ere emozio bat egoera batekin lotzea, emozio hori zer den azaldu beharrean “tristura, cuando nos caemos y nos hemos hecho daño”, “asperdura, cuando voy a hacer los deberes”, “lasaitasuna, cuando estás viendo la tele”, “naska, cuando como pescado”. Ikasle batzuk berriz, ez dituzte definizioak bete blokeatu direlako. Adibide horiekin ikusten da ikasleek ez dakitela emozio bat zer den hitzekin azaltzen baina, badakite zein egoeratan sentitzen dute hori. Hala ere, zenbaitetan kostatzen zaie sentitzen dutena identifikatzea eta badakite nola dauden baina ez emozio horren izena horregatik, haientzat errazago era erabilgarriagoa da marrazkietaz baliatzea hitzekin ez dakitena azaltzeko.

Haien marrazkien argazkiak erakutsi zaienean, ikertzailearen laguntzarekin agertutako emozioak identifikatu dira eta horrekin batera, ikasleek egindako hausnarketaz baliatuz, ikertzaileak ondorio batzuk atera ditu:

Lehenik eta behin, ikasleak konturatu dira argazkietan haiek pentsatzen zuten baino emozio gehiago agertzen direla. Une labur batean emozio ezberdin asko agertzen dira eta gehienetan ez dira jabetzen beraz, alde horretatik, argazkiak ikustea oso baliagarria izan da haientzat. Gainera, marrazki horiei esker, besteek nola sentitzen diren ohartzen dira eta empatia garatzen dute besteen egoera hobeto ulertzen dutelako. Horrekin lotuta, marrazkia sentitzen dutena azaltzeko tresna ona dela konturatu dira. Hitzekin gehiago kostatu zaie benetan nola sentitzen diren azaltzea edo emozioak identifikatzea, kontzeptu oso abstraktuak eta subjektiboak direlako eta marrazkiekin berriz, oso erraz eta azkar adierazi dute. Azkenik, baieztatu dute hitzak ez direla beti beharrezkoak zerbait transmititzeko edo adierazteko eta marrazkiekin, erosoago sentitzen direla zerbait azaldu nahi dutenean.

## 6. ONDORIOAK

Arte hezkuntza eta zehazki marrazkigintza, haurrek egunero oso presente duten baliabide bat da, haien garapen integralean esku hartzen duena eta komunikazio- eta adierazpen-bide gisa erabiltzen dutena inguruan daukatena irudikatzeko. Horren garrantziaz kontuan izanda, ikerketa honetan jorratu den gai nagusia izan da, ikastetxeetan marrazketari benetan ematen zaion erabilera ezagutu eta ulertzeko asmoarekin eta horretarako, bai irakasleek bai ikasleek galdetegi bat bete dute ikuspuntu ezberdinen berri izateko. Horretaz gain, marrazketa ikasleentzat komunikazio-tresna baliagarria den frogatzeko, emozioen gaia erabili da hitzezko eta adierazpen grafikoen arteko aldeak identifikatzeko. Azken hori aurrera eramateko, lehenik eta behin hitzen bidezko adierazpen emozionalak neurtu da ondoren, irudiaren bidezko adierazpen emozionalak aztertu dira eta azkenik, bi jardueren emaitzak alderatu dira.

Zehaztutako helburuei begira, lehenengo helburu orokorra Lehen Hezkuntzako irakaslegoaren ikuspuntutik, marrazkiaren erabileraren errealitatea eskolan behatzea izan da eta hori, galdetegi baten bidez lortu da. Nahiz eta irakasle gehienek adierazi marrazkigintzari buruzko ezagutza edo formakuntza nahikorik ez dutela, irakasleen erdiek baino gehiago astero proposatzen dute marrazketa haien geletan, ikasleentzat jarduera motibagarria dela uste dutelako. Helburu horren barruan, beste berariazko helburu batzuk zehaztu dira marrazketaren erabileraren errealitatea hobeto ezagutzeko:

Lehenengoa marrazkiaren helburu pedagogiko edo didaktikoak identifikatzea izan da eta irakasleek marrazketa proposatzerakoan helburu ezberdinak dituztela frogatu da. %74,1entzat helburu nagusia denbora librean betetzea izaten da eta horrekin, bigarren berariazko helburua frogatzen da, marrazkia Lehen Hezkuntzan denborapasatuz hartzen dela baieztatzean. Irakasleen %44,4rentzat berriz, helburu nagusia umeen ikuspuntuak, iritziak edota bizipenak jasotzea da beraz, oraindik ezta irakasleen erdiek ez dituzte haurren marrazkiak kontuan hartzen haien barne-egoera ezagutzeko eta Muñoz-Rodriguezek (2019) aipatzen duen moduan, marrazkietan sakontzen eta sortutako irudi bakoitzak umeentzat zer esan nahi duen galdetzen saiatu behar dugu, irudi baten bidez esan nahi dugutena jakiteko eta kasu honetan, horri ez zaio lehentasuna ematen. Horretaz gain, marrazketa denborapasatuz hartzen dela kontuan izanda, ondorioztatu daiteke ez zaiola hainbeste garrantzirik ematen eta ikasleen marrazkiekin lanketa egokia egitea komenigarria izango litzatekela.

Beste berariazko helburu batera pasatuz, marrazketa-proposamen didaktikoak eta horien ebaluazioa nola egiten duten aztertzea lortu da. Irakasleen erdiak baino gehiago (%56,6)

egiten dituzten marrazketa-proposamenak erdi gidatuak dira, aurretik gai bat edo materialak finkatuz. %35,8k marrazketa guztiz librea proposatzen dute eta %7,5ek berriz, marrazketa gidatuak eramaten dituzte aurrera. Lortutako datu horiekin orokorrean, Cabrera-Méndez (2011) esana betetzen dela baieztatu daiteke, hurrei askatasunez adierazteko aukera eman behar zaiela baina horrek ez du esan nahi ezin dutela irakasleen orientazio edo laguntzarik jaso. Kasu honetan, irakasle gehienek marrazketa librea egiten uzten diete edo orientabide batzuk emanda modu horretan, ikasleek aske sentitzen dira nahi dutena adierazteko, inolako presiorik izan gabe. Aitzitik, irakasle batzuk edukietan gehiago zentratzen dira eta prozesu guztia gidatzen dute eta horren ondorioz, haurren ideiak mugatuta ikusten dira eta frustrazioa agertzeko arriskua dago, espero den emaitza ez lortzean.

Ebaluazioari dagokionez, haurren marrazkiak ebaluatzea ez da ohikoena bakarrik %33,3ek egiten dute eta ebaluatzekotan, gehienek subjektiboak diren alderdiei garrantzi gehiago ematen diete hau da, prozesuan zehar izandako ahaleginari eta emaitzaren txukuntasuna eta originaltasunari. Batzuek ere klasean landutako eduki teorikoak marrazkian agertzeari garrantzia ematen diote eta gutxiengoek, arte plastikoaren edukiak menperatzeari. Marrazkiak kalifikatzen edo ebaluatzen direnean, azken finean haurrak esan nahi duenari nota bat jartzen ari zaio eta horrek, eragina handia dauka haurren autoestimuan. Hori dela eta, irakasle askok ez dituzte marrazkiak kalifikatzen eta egitekotan, haien kriterioa jarraitzen dute beren ezagutzaren arabera. Marrazkiak adierazpen pertsonalak eta indibidualak dira eta ebaluatu beharrean, baloratu behar dira haur bakoitzak bere irizpide propioak ezarriz, haien dira benetan haien lana ezagutzen dutenak. Hala ere, kanpoko balorazio bat jasotzea gustatzen zaie haien esfortsuaren onarpenera delako.

Lehenengo helburu orokorra borobiltzen duten azkenengo berariazko helbueri erreferentzia eginez, irakasleen ustetan marrazketaren baiabide pedagogiko gisa erabilgarria dela frogatu da. Gehienek aipatu dute marrazkiak oso erabilgarriak direla adierazpen grafikoaren bidez umeei informazioa jasotzeko baina aurretik aipatu den bezala, marrazketa proposatzen dutenean berriz, haien helburu nagusia denbora libreak betetzea da eta ez ikasleen bizipenak edo sentimenduak jasotzea beraz, honek demostratzen du irakasleek ez dituztela baliabide edo ezagutza nahikorik umeen adierazpenak ulertzeko.

Ikerketaren beste helburu orokorra bete da, LHko ikaslegoaren ikuspuntutik marrazkiaren erabilgarritasuna ulertzea, beste berariazko helburuak lortzean. Zentzu honetan, galdetegiari esker, LHko ikasleen marrazkiarekiko jarrera eta zaletasuna ezagutzea lortu da baita horren inguruko iritzia jasotzea ere. Marrazkigintza orokorrean gustoko duten eta motibatzen dituen jarduerak da eta gehienek egunero praktikan jartzen dutena. Irakasleek adierazi duten

moduan, ikasleek ere marrazketa denbora librearekin lotzen dute eta horren ondorioz, ez dira oso kontziente marrazkiaren bidez komunika daitezkeela, beti sinetsarazi zaielako zer eginik ez dagoenerako jarduera dela.

Ikasleek marrazki libreak egitea nahiago dutela ezagutu da eta haien kabuz nahi dutena marraztea modu horretan, askatasunarekin sentitzen dira inork epaituko ez dituen beldurrik gabe. Orokorrean, haien kabuz ikasten duten jardueratzat hartzen dute oso txikiak direnetik bakarrik garatzen joaten duten gaitasuna delako nahiz eta denborarekin, helduen aholkuak edo orientabideak jasotzen joaten dira.

Ikasleen hitzezko narrazioak eta narrazio bisualen artean dauden desberdintasunak identifikatzea lortu da eta horretarako, ikasleek patioan sentiarazten dituzten emozioak hitzekin eta marrazkiekin adierazi dituzte. Hitzekin bakarrik 8 emozio izendatzea lortu dute eta definizioak ematerakoan, emozio horiek zer diren azaltzeko ez dira gai izan, oso definizio sinpleak emanez eta egoera batekin lotuz eta marrazkiekin berriz, 14 emozio ezberdin identifikatu dituzte. Haurrei gehiago kostatzen zaie hitzen bidez adierazi nahi dutena azaltzeko errekurtsoak eskuratzea hori dela eta, blokeoak agertzen dira eta ez dute adierazten. Marrazketarekin aldiz, konprobatu da umeez adierazteko tresna oso egokia dela eta haientzat errazagoa da buruan dutena irudien bidez helaraztea. Egin dituzten marrazki gehienak, giza-itxura dute eta autorretrato isolatuak, eta horren zergatia haien burua ikusten duten moduan irudikatzea saiitzen direla da, errealismo figuratiboa bilatuz. Azkenik, ikasleek bi jarduera horietan emandako ezberdintasun horietaz ohartzeko, haien marrazkien argazkiak erakutsi zaizkie eta guztien artean horren inguruan hausnartu dute, hausnarketa horretarik ondorio interesgarriak atera direnak. Adierazpen grafikoei esker besteek adierazi nahi dutena hobeto identifikatzen eta ulertzen dute baita beraien ideiak errazago adierazi ere eta hori esker, haien arteko komunikazioa hobetagoa izatea lortzen dute.

Helburuekin lortutako emaitzez gain, graduako praktikaldiaren bitartean gai honi buruzko jarduerak aurrera eraman dira, marrazketa komunikabide gisa erabilera sustatzeko eta emozioei buruzko lanketa egiteko, horri esker, beste emaitza interesgarri batzuk lortu dira. Jarduera horietako bat emozioen postontzi bat egitean datza eta horren helburua, ikasleek zerbait adierazteko beharra dutenean, marrazki batean plasmatzea eta bertan sartzea da. Ondoren, astearen bukeran, asanblada egin da eta marrazki bakoitzak adierazten duena ulertzen saiatu dira. Egileak nahi izanez gero, bere marrazkiaren interpretazioa eman dezake besteek bere lekuan jarri ahal izateko eta irudien alderdi subjektiboa begirunez konpartitzeko.



Jarduera horri esker, ikasleak marrazkien bidez komunikatzen hasi ziren eta liskarrak edo arazoak zeudenean, haien arteko elkarrizketa bat izan beharrean, gertatutako eta nola sentitu ziren irudiekin adierazten zuten eta besteak, horren interpretazioa egiten zuen besteen lekuan jartzen saiatuz, konponbide bat bilatzeko. Irakasleentzat horrelako jarduera ere lagungarria izan daiteke haien ikasleen egoerak ulertzen laguntzen dietelako.

Behin emaitza guztiak jasota, GrAL honen bidez baieztatu daiteke marrazketa Lehen Hezkuntzan erabiltzeko tresna oso lagungarria izan daitekeela hori dela, horren inguruko ikuspegia aldatzea lortu behar dela denborapasa bezala soilik ez ikusteko eta denbora eskaini behar zaiola. Hortaz, ikerketa hau esanguratsua izan daiteke marrazkiak hurrengan dituen ekarpenak ikusarazteko eta marrazketaren erabilera egokia sustatzeko.

## 7. MUGAK ETA HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

GrAL honen bidez, ikerketa akademiko bat egiteko aukera eman da eta esan beharra dago, graduan zehar ikerketa-prozesuan jasotako formakuntza ezagatik oztupoak eta mugak aurkitu dira. Hasieran buruan planteatzen dena argitasunez ikusten da baina, behin praktikara eramanda, arazo edo zailtasunak sor daitezke.

Erabilitako ikerketa-tresna nagusietako bat galdetegiak izan dira, hauek oso erabilgarriak baitira lortu nahi diren datuak modu azkarrean lortzeko. Hala ere, horietan emandako erantzun idatziak interpretatzerakoan zailtasunak agertu dira, analisi kualitatiboa egiteko gaitasun desberdinak behar baitira ikertzailearen aldetik. Hainbeste erantzun ezberdin izanda, hitz gakoak bilatzeak eta horren arabera sailkatzeak ahalegin handia eskatzen dute. Erantzun idatziekin ere garrantzia handia hartzen du bakoitzaren ulermen-prozesuak eta ikuspuntu subjektiboak. Normalean, galdetegiak oso azkar betetzen dira eta bakoitzak, galdera modu baten interpretatzen du hori dela eta, erantzunak oso desberdinak izaten dira, ikertzailearen analisi-prozesua konplikatu. Horretaz aparte, batzuek, erantzun luze bat eman behar denean salto egiten dute, eta horrek ere ikerketa oztopatzen du datu guztiak jasotzen ez direlako.

Ildo berean, ikerketan parte hartu duten ikasleek ere zailtasunak izan dituzte galdetegiko galderak ulertzeko, ikertzaileak aurretik azaldu arren. Galdetegi klase ordu batean bete dute eta ulermen-zailtasunak direla eta, ikasle batzuk erantzunak partekatu dituzte haien artean, parte-hartzaileen arteko erlazioek ikerketaren emaitzetan eragina izanik. . Agian, modu indibidualean egitea esanguratsuagoa izango litzateke, umeen iritziak benetan ezagutzeko.

Ikertzen eskuratutako ikaspena, aurreikusita eramaten den guztia edozein unetan hautsi daitekeela eta momentuan egokitu edo aldaketak egin behar direla izan da. Ikasleen beharrak eta egoera kontuan hartuz, ikerketan zehar aurrera eraman diren jarduerak moldatu egin dira, parte-hartzaile guztiek aukera berdina izan ditzaten. Ikerketa aurrera eraman aurretik agertu daitezkeen egoera edo zailtasun guztiak kontuan hartu behar dira, horri erantzun egoki bat eman ahal izateko, eta hori ez da beti ikerketan zehar bermatu. Adibidez, patioko momentuan umeek jolastera ohituta daudenez, zailtasunak dituzte beraien emozioak momentuan identifikatzeko. Horregatik ikertzailearen eginkizunetako bat izan da patioko jolasen bitartean behaketa egitea, eta adierazpen emozionalak zeudenean ikasleei hori erakustea, momentuan marraztu zezaten gertatutakoa.

Bestalde, lan honetatik hobetu beharreko alderdi nagusietako bat denboraren kudeaketa izango litzateke. Lan txiki batean hainbeste informazioa jasotzea eta aztertzea erronka handia

da eta bere osotasunean ondo prestatzeko, laneko kronograma funtsezko faktorea da. Ikerketa graduko praktikaldian zehar aurrera eraman da eta behin praktikak bukatuta, oso denbora urrian datu guztiak jaso eta aztertu behar izan dira. Gainera, horri praktiketako lanaren presioa ere gehitu behar zaio. Horregatik, hurrengorako lan-plangintza hobeto antolatu beharko litzateke, atal bakoitzari denbora gehiago eskainiz eta egindakoa behin eta berriz berrikusiz.

Azkenik, ikerketa hau jarraitzekotan, adin ezberdinetako parte-hartzaileekin burutzea interesgarria izango litzateke, datuak kontrastatzeko eta ondorio aberatsagoak lortzeko garapenaren alderdi ebolutiboa kontuan izanik. Gainera, jarduerak egiterakoan, parte-hartzaileen antolaketa aldatzea komenigarria izango litzateke, talde txikiak eginez. Ikasleen kopurua murrizterakoan, haiek erosoago sentitzen dira eta hobeto adierazten dira. Horretaz gain, arreta indibidualago eskaini ahal zaie eta horrek emaitzetan eragin positiboa izan daiteke. Behin ikerketaren emaitzak jasota izanda, horren inguruko lanketa sakonagoa egiteko asmoarekin, unitate didaktiko bat planteatu daiteke modu horretan, marrazkigintza eta hezkuntza emozionala ikasleen ikaskuntza-prozesuan integratuz.

## 8. ERREFERENTZIAK

- Abundis, V.M. (2016). Beneficios de las encuestas electrónicas como apoyo para la investigación. *Tlatemoani: revista académica de investigación*, 7(22), 168-186.
- Acaso, M., eta Nuere, S. (2005). El currículum oculto visual: aprender a obedecer a través de la imagen. *Arte, individuo y sociedad*, 17, 207-220.
- Aguirre, I. (1997). Marrazki librea, benetan librea? *Hik hasi*, 2(17), 8-16.
- Aquino, M.A, Ugarte, T.R. eta Alanya-Beltrán, J. (2021). Revisión sistemática acerca del dibujo infantil en la educación. *Centro Sur*, 4(3).
- Bautista, A., Rayon, L. eta De las Heras, A. M. (2018). *Imágenes experienciales y foto-elicitación en la formación del profesorado*. *Educatio Siglo XXI*, 36.
- Buckingham, D. (2005). *Educación en medios. Alfabetización, aprendizaje y cultura contemporánea*, Barcelona, España: Paidós.
- Cabrera-Méndez, M.L. (2011). Expresión plástica en el primer ciclo de Educación Primaria. *Innovación y experiencias educativas*, (40).
- Caja, J., Berrocal, M., eta González, M. (2002). Un mundo lleno de imágenes. *Aula de Innovación Educativa*, (116).
- Cisterna, F. (2002). Currículum oculto: Los mensajes no visibles del conocimiento educativo. *REXE: Revista de estudios y experiencias en educación*, 41-56, 1(1).
- Eisner, E. (2004). *El arte y la creación de la mente*. Barcelona. Paidós.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. (2015). *Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum 2020*. Hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua. Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Federación de Enseñanza de CC.OO. de Andalucía. (2010). Temas para la educación. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 6.
- Freedman, K. (2002). Cultura visual e identidad. *Cuadernos de pedagogía*, 312.

- García-López, M. (2019). *Kidactica, Aprendizaje y Comunicación. La importancia del dibujo en el desarrollo infantil*. <http://www.kidactica.com/rincon-pedagogico/publicaciones/la-importancia-del-dibujo-en-el-desarrollo-infantil>
- Guerra, L. (2014). *Los cuentos y las películas infantiles como recursos didácticos para trabajar las emociones en el aula de Educación Infantil*. Zaragoza: unibertsitatea, gizarte eta giza zientzien fakultatea.
- Jiménez, C.E., Mancinas, R. eta Martínez, Y. (2008). La sociedad del futuro: una mirada a través del dibujo infantil. *Perspectivas de la comunicación*, (2), 7-16.
- Leal, A. (2010). Dibujos infantiles, realidades distintas: un estudio sobre simbolización gráfica y modelos organizadores. *Revista de Psicología da UNESP*, 9 (1), 140-167.
- Llenas, A. (2015). *Koloretako mustroa*. Flamboyant.
- López, M. eta Martínez, N. (2006). *Arteterapia. Conocimiento interior a través del arte*. Madrid, Tutor.
- Lowenfeld, V. (1972). *Desarrollo de la Capacidad Creadora*. Kapelusz. S.A.
- Luquet, G. (1927). *El Dibujo Infantil*. Médica y Técnica. S.A.
- Lurçat, L. (1982). *Pintar, dibujar, escribir, pensar. El grafismo en el Preescolar*. Cíncel.
- Palacios, A. (2006). El dibujo infantil y la influencia de la cultura visual: todas las imágenes del mundo caben en un dibujo. *Revista Aula infantil* 32.
- Machón, A. (2009). *Los dibujos de los niños. Génesis y desarrollo de la representación gráfica. Un estudio evolutivo*. Ediciones Cátedra.
- Maestre, A.B. (2010). El dibujo en la escuela. *Innovación y experiencias educativas*, (26), 1-12.
- Manjarrés, Y. (2015). Dibujo libre y desarrollo infantil en las aulas de preescolar. *Experiencias Investigativas y Significativas*, (2), 125-132.

- María. (2020). *Actividades de infantil y primaria*.  
<https://www.actividadesdeinfantilyprimaria.com/page/5/?s=emociones>
- Marín, R. (1988). El dibujo infantil: Tendencias y problemas en la investigación sobre la investigación plástica de los escolares. *Arte, individuo y sociedad*, (1), 5-30.
- Michelle, D. (2016). El arte, medio de expresión para los niños. *La Prensa*.  
<http://www.laprensa.hn/familiayhogar/965752-410/el-arte-un-medio-deexpresi%C3%B3n-para-los-ni%C3%B1os>
- Muñoz-Rodríguez, Mayaribe C. (2019). El dibujo como medio de comunicación utilizado por el niño en la escuela. *CIEG*, (38), 31-41.
- Ojeda, F. C., eta Vázquez, M. L. (2014). *El dibujo simplificado como una estrategia didáctica para docentes, para mejorar el proceso didáctico en el área de Ciencias Naturales de décimo año de Educación General Básica del Colegio Miguel Merchán Ochoa durante el periodo lectivo 2013-2014* (Litzentziatura Tesia). Salesiar Unibertsitate Politeknikoa Cuencako Egoitza. <https://dspace.ups.edu.ec/bitstream/123456789/7217/1/UPS-CT004063.pdf>
- Piaget, J. (1975). *Psicología de la inteligencia*. Paidós.
- Puleo, E. M. (2012). La evolución del dibujo infantil. Una mirada desde el contexto sociocultural merideño. *Educere*, (53), 157-170.
- Rivera, J., Lasseter, J., Satanton, A, (produktoreak) eta Docter, P., del Carmen, R. (zuzendariak). (2015). *Inside Out* (pelikula). Pixar eta Walt Disney Pictures.
- Sáinz-Martín, A. (2014). *El arte infantil: conocer al niño a través de sus dibujos*. Eneida
- Stern, A. (2008). *Del dibujo infantil a la Semiología de la Expresión: Iniciación a otra mirada sobre el trazo*. Samaruc.
- Stern, A. (2011). *Ano Stern*. <http://www.arnostern.com>
- Stern, A. (2014). *De la Semiología a la Expresión del dibujo infantil*. Editors Carena.
- Vigotsky, L. (1990). *La imaginación y el arte en la infancia* (81). Akal.

## 9. ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: Marrazketaren etapak

MARRAZKETAREN ETAPAK:	
Luquet (1927)	<ul style="list-style-type: none"><li>● <b>Ustekabeko errealismoa</b> (2 urte inguru) → haurrak marrazkiaren esanahia ezagutu zirriborroak egiten.</li><li>● <b>Errealismo frustratua</b> → errealitatea marrazten hasi nahi du baina oraindik irudi distortsionatuak agertzen dira, mugimen-koordinazio eza dela eta.</li><li>● <b>Errealismo intelektuala</b> → modeloaz dakien guztia marrazten du, benetako itxurara mugatu gabe.</li><li>● <b>Errealismo bisuala</b> (8 urtetik aurrera) → eredia ikusten den bezala irudikatzen hasten da, errealista izaten saiatuz.</li></ul>
Lowenfeld (1972)	<ul style="list-style-type: none"><li>● <b>Zirriborroaren etapa</b> → 3 zirriborro mota bereizten ditu (2-4 urte bitartean):<ul style="list-style-type: none"><li>○ <b>Zirriborrate desordenatua:</b> haurrak oraindik ez du inolako kontrolik bere mugimenduan beraz, zentzurik gabeko marrazkiak eta desordenatuak egiten ditu. Ez du kolorearekiko interesik erakusten.</li><li>○ <b>Zirriborrate kontrolatua:</b> konturatzen da bere mugimenduek nola eragiten diote paperari eta kolore-aldaketek erakartzen dute.</li><li>○ <b>Izena duen zirriborroa:</b> zirriborroak begiratzen ditu, esanahi bat bilatuz.</li></ul></li><li>● <b>Eskematika aurreko etapa</b> → marrazkietan eskemak egiten hasi, giza irudiarekiko interesa sentitzen du eta aurpegiek eta marrazkiek elementu gutxi dituzte baina pixkanaka, handitzen dira.</li><li>● <b>Etapia eskematikoa</b> → objektua den bezala irudikatzen saiatzen da, koloreak barne.</li><li>● <b>Errealismoaren etapa</b> → marrazkia naturalagoa da.</li><li>● <b>Pseudonaturalismoaren etapa</b> → azken produktuak gero eta garrantzi handiagoa du. Marrazkiak ikuspegi espaziala du, eta gorputzaren marrazkiak esanahi handiagoa hartzen du, marrazkiaren ezaugarri sexualak areagotuz.</li></ul>






	<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Erabakiaren etapa</b> (13 urtetik aurrera) → haurrak erabakitzen du zein teknika hobetu nahi duen, lortu nahi duen produktuaren arabera eta marraztutakoak, sentimenduak erakusten ditu (zentzumenen inpresionismoa).</li> </ul>
<b>Arno Stern (2008)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Lehen irudiak</b> → keinua mantsotu egiten da, hasiera eta amaiera duen ibilbidea bihurtuz. Haurra irudi horiek beste batzuk bihurtzen hasten da, Formulazioaren lehen irudia sortuz. Lehen Irudiek jolasten gozaten dute, errepikapenarekin, bilakaerarekin eta beste figura batzuekin duten harremanarekin esperimendatuz. Askotan, haur frustratu bat aurkitzen dugu, esanahidun figura bat marrazten saiatzen, baina irudi horiek ez dute ezer irudikatzen.</li> <li>● <b>Objektu-irudiak</b> → irudi primarioek objektu-irudietan eboluzionatzen dute. Hauek berez sortzen dira eta haurraren desirarekin bat dator.</li> <li>● <b>Oinarrizko irudiak</b> → aitzakiarik gabe agertzen dira, indar eta intentsitate ezezagunarekin (arkua, marra inguratzailea, inbutua, erraboila, estutzea, erupzioa eta erritmoa).</li> </ul>
<b>Machón (2009)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Informaren aldia</b> (urtetik- 3 urtera) → marrazketa egiteko ekintza eta mugimendua menderatzen ditu, eta beste 4 etapa ditu: zirriborro aurrekoa, kontrolik gabeko zirriborroa, zirriborro koordinatua eta zirriborro kontrolatua.</li> <li>● <b>Formaren aldia</b> (irudikapen grafiko-sinbolikoa) → bi gertaera aurkitzen ditugu: grafismoaren baieztapena eta formaren kontzepzioa. Bere ezaugarriak garrantzitsuena trazuen autonomia formalaren konkista da.</li> <li>● <b>Eskematizazio-aldia</b> (irudikapen figuratiboaren hastapenak) → eskematizazioa haurrak objektua irudikatzen duten irudiak sortzeko duen joera da: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Eskematika aurreko etapa:</b> haurrak bere ahalegina egiten du bereizitako eta loturarik gabeko irudi-multzo bat egiteko.</li> <li>○ <b>Etaparen eskematikoa:</b> espazioaren lehen irudikapena agertzen da. Haurrak marrazkia adierazteko baliabide gisa erabiltzen hasten du.</li> </ul> </li> <li>● <b>Giza irudikapenaren aldia</b> (7 urtetik aurrera) → Giza gorputzak ospe handia du haurren marrazketaren ikasketetan.</li> </ul>


4. taula: autore ezberdinek bereizitutako marrazketaren etapak



## 2. ERANSKINA: Emozioak lantzeko materiala

Señala como te sientes en las siguientes situaciones:


- No puedes ir al cumpleaños de tu mejor amigo/a.  

- Apruebas el examen que tanto has estudiado.  

- Vas de viaje con tu familia.  

- Te regañan por algo que no has hecho.  

- Pierdes tu juguete favorito.  





1. Irudia: "Actividades de Infantil y Primaria" web-orritik ateratako emozioak lantzeko fitxa eredu (Maria, 2020)

### 3. ERANSKINA: Irakasleentzako galdetegia (egindako galderak eta jasotako erantzunak)


Gaur egun zauden LHko irakaskuntza zikloa  
53 respuestas



Zenbat denbora daramazu LHko irakasle lanetan?  
54 respuestas




Magisteritza egin ostean, arte plastiko edo marrazkiari buruzko formakuntza osagarria jaso duzu?  
54 respuestas




Marrazkia baliabide pedagogiko gisa erabiltzen duzu zure ikasleekin?

54 respuestas




Zer maiztasunarekin proposatzen duzu marrazketa klase orduetan?

54 respuestas




Zer helbururekin proposatzen duzu marrazketa klase orduetan? (erantzun bat baino gehiago aukeratu daitezke)

54 respuestas



Nola dira umeek marrazteko egiten dituzun proposamenak normalean?


53 respuestas



- Marrazki librea (umeak aukeratzen ditu gaia eta materialak)
- Erdi gidatuak (gai orokor bat, material desberdinak aukeran)
- Gidatuak (irakasleak finkatutako gaia eta materialak)

Umeen marrazkiak ebaluatzen edo kalifikatzen dituzu normalean?


54 respuestas




- Bai
- Ez

Aurreko galderari baietz erantzunez gero, zeintzuk dira ebaluatzeko irizpideak? (erantzun bat baino gehiago aukeratu daiteke)


19 respuestas




Uste duzu orokorrean LHko ikasleentzat marrazketa jarduera erakargarria edo motibagarria dela?  
53 respuestas



Uste duzu orokorrean marrazketa baliabide pedagogiko erabilgarria dela LHn?  
54 respuestas



Marrazkiaren baliagarritasunei eta onurei buruzko beharrezko ezagutza duzula uste duzu?  
54 respuestas



#### 4. ERANSKINA: Irakasleek galdetegian emandako argudioen sailkapena

Ikasleentzat marrazketa erakargarria/motibarraia den emandako argudioak:		
KATEGORIAK	KODEAK	IRAKASLEEN ERANTZUNAK
<b>Emozioak</b>	Asetze pertsonala	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondo sentitzen direlako.</li> <li>- Oso gustura egoten direlako eta beraien kreatibitatea lantzen delako.</li> <li>- Orokorrean, gustora eta motibazioarekin praktikatzen duten jarduera delako. Interesgarria era aberasgarria ere.</li> <li>- Gehienek gustora sentitzen direlako.</li> <li>- Gustatzen zaielako.</li> <li>- Gustoko dutelako eta erakargarria delako (Irudimena lantzeko, sorkuntza, ikasitakoa irudiz irudikatzen...).</li> <li>- Gustatzen zaien zerbait delako.</li> <li>- Orokorrean margotzea gustatzen zaielako.</li> <li>- Gustura ibiltzen direlako euren imaginazioarekin, bere momentua delako...</li> <li>- Taldearen arabera. Badaude taldeak oso gustora egiten dutenak eta beste batzuk ez dago modurik.</li> <li>- Gustoko dute beraien marrazkiak besteei erakustea.</li> <li>- Gustatzen zaielako.</li> </ul>
	Askatasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gustoko dutenentzat bai. Gamuza asko adierazi ahal dutelako, modu askean.</li> <li>- Eskaintzen duen sormen eta askatasun aukeragatik.</li> <li>- Aske sentitzen dira nahi dutena egiteko.</li> <li>- Aske sentitzen direlako. Normalean gustatzen zaie, baina badaude ere frustratzen direnak esaten dutelako ez dakitela ondo marrazten.</li> <li>- Era librean asko gozatzen dute. Beraien adierazpen era bat da</li> <li>- Dibertigarria iruditzen zaielako eta presiorik gabe egiten dutelako.</li> <li>- Eskatu ezker ez dute egin nahi. Librea bada gusturago egiten dute.</li> <li>- Hizkuntza bat delako, eta aske sentitzen direlako.</li> </ul>
	Barruko-egoeraren adierazpena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sentimenduak adierazteko balio duelako.</li> <li>- Bere ideiak eta emozioak marrazketaren bidez adierazten dituztelako eta marraztea gustatzen zaielako.</li> <li>- Batzuk gustoko dutelako, beste batzuek behar dutelako bere ezinegonak baretzeko, beste batzuei lasaitzen zaielako...</li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egia da taldearen arabera gehiago edo gutxiago gustatzen zaiela. Aurten adibidez, orokorrean asko gustatzen zaien ekintza bat da. Lasaitzen lagutzen dielako, haien buruan daukatena plasmatzen lagutzen dielako...</li> <li>- Bere sentimenduak adierazten eta lasaitzen laguntzen die.</li> <li>- Batzuentzat bai bere pentsatzeko era adierazteko tresna bat delako.</li> <li>- Beraiek buruan daukatena paperean ateratzea eta fisikoki ikusi eta materializatzea oso motibagarria zaiela uste dut.</li> <li>- Bere gauzak adierazteko tresna oso ona dela eta.</li> <li>- Ikasleek beti marraztea eskatzen dute, askok erlaxatzeko moduan erabiltzen dute, eta askotan arazo pertsonalak edo sozialak izatekotan, marrazkien bidez adierazten dute hobeto arazo hori hitzak erabiliz baino, komunikatzeko bide bat da haientzako.</li> <li>- Askok beraien emozioak bideratzen dituztelako, eta beste batzuk lasaigarri bezala erabiltzen dituzte.</li> <li>- Ikasleek haien irudimena eta pentsaera plazaratzeko eta erakusteko modu bat delako.</li> <li>- Irudiak irudimena garatzeko ezinbestekoa da ta. Gainera marrazkien bidez, ez bakarrik eduki kontzeptualak, emozioak edo sentimenduak ere adierazi ahal direlako.</li> <li>- Ikus daitekeelako umeak bizi duen egoera zentzu askotan (emozionala, familiarra, autokontzeptua, etab.)</li> </ul>
<b>Baliabide pedagogikoa</b>	Sormena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beraien kreatibitatea lantzen delako.</li> <li>- Irudimena garatzeaz gai, baliabide ezin hobea delako.</li> <li>- Irudiak irudimena garatzeko ezinbestekoa da eta gainera marrazkien bidez, ez bakarrik eduki kontzeptualak, emozioak edo sentimenduak ere adierazi ahal direlako.</li> </ul>
	Eduki teorikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Modu manipulatioan eta teknika eta baliabide desberdineen bidez eduki teorikoak zein praktikoak barneratzen dituztelako.</li> </ul>
<b>Zailtasun maila</b>	Erraztasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errezago ikasten dutelako.</li> <li>- Buruan daukaten guztia azaltzea errazagoa delako.</li> <li>- Ez guztiei, baina gauzak ulertzeko edo ikusteko oso modu erreza dela iruditzen zait.</li> </ul>
	Ezjakintasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ????</li> <li>- Nik ez dakidalako marrazketa teknikan ezagutzen eta ezin diet horretan gustura trebatu.</li> <li>- ?</li> </ul>

<b>Erakargarria (bai/ez)</b>	Motibazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburuak erabiltzearen ezberdina den dinamika bat delako. Nire ustez ikasleak aske sentitzen dira marrazten dutenean, "haien munduan" murgiltzen dira eta liburuen aurrean egotearen ezberdina den zerbait egiten dutenean asko motibatzen diete jarduerak.</li> <li>- Irudia beti da erakargarri.</li> <li>- Ikasleak ikasturteetan gora joan ahala testuinguruak marrazketatik aldetzen dituela uste dut. Hori sumatzen dudanean, lehenengo urteetan marrazketak asko motibatzen dituela uste dut, material grafikoa (marraztutakoa) bisualago, ulergarriago eta esanguratsuago egiten zaielako.</li> <li>- Beraiek buruan daukatena paperean ateratzea eta fisikoki ikusi eta materializatzea oso motibagarria zaiela uste dut.</li> </ul>
	Interes eza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Askotan zeozer derrigorrezko bezala ikusten dutelako. Oso azkar bukatzen dute, ta interesa jarri gabe.</li> <li>- Betidanik modu berean egin dutelako eta ez dago ezer berririk interesa pizteko.</li> </ul>

5. taula: irakasleek galdetegian emandako marrazketaren erakargarritasunari buruzko argudioak

<b>Marrazketa baliabide pedagogiko erabilgarria den emandako argudioak:</b>		
<b>KATEGORIAK</b>	<b>KODEAK</b>	<b>IRAKASLEEN ERANTZUNAK</b>
<b>Elkarbizitzarako konpetentzia</b>	Emozioak adierazi eta jaso	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sentimenduak adierazteko balio duelako.</li> <li>- Ume asko oso ondo espresatzen direlako marrazkien bidez, eta horrek laguntzen digu emozionalki bola dauden jakiteko.</li> <li>- Nire ustez marrazketak badu garrantzia LHn. Ikasleen trebeziak, sentimenduak, emozioak eta abar antzemateko baliagarriak direla uste dut.</li> <li>- Barnean daramatzaten gauza asko ikasten dugu umeen marrazkietatik.</li> <li>- Beste era ezberdina da haien barruko mundua kanporatzeko, ikasitakoa indartzeko, ...</li> <li>- Gauza asko adierazi ahal dute marrazkien bidez.</li> <li>- Umeentzat gauzak adieraztea horrela errazagoa delako.</li> <li>- Umeen marrazkietatik gauza asko ikusten direlako,beraien sentimenduak...interpretatzen jakinez gero.</li> <li>- Gauza asko ikus daitezkeelako marrazki baten bidez.</li> <li>- Gauza asko ikusi ahal dira marrazki batean, egoera emozionala, gaitasunak...</li> <li>- Sentimenduak adierazteko balio du eta haiek erabaki pertsonal asko ere hartu behar dituzte.</li> </ul>



		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Umeaz asko jakin dezakegu beraien marrazkiak eta ekoizpenak behatuz</li> <li>- Hezitzaileak gauza asko aztertu eta behatu ahal dituelako.</li> <li>- Zeren eta marrazkietan ere gauza interesgarri asko ikusten dira eta kontuan hartu behar dira ebaluatzeko momentuan.</li> <li>- Datu asko jasotzen baitira.</li> <li>- Gauza asko erakusten dituzte marrazkietan eta irakasleok informazio asko lortzen dugu hortik, batez ere 1. Zikloan.</li> <li>- Ikasle batzuek irudien bidez euren pentsamenduak adierzateko edo mundua ulertzeko erreztasun handia daukatelako.</li> <li>- Ikasleek marrazkietan detaile edo lotura asko adierazten dituzte, orokorrean hitzen bidez azaltzeko zaila dena. Marrazkiek zerbait "primitiboa" daukate pentsamenduari konektatuta daudelako.</li> <li>- Haurrak ahozko hizkuntza eta, batez ere, idatzitakoa menperatzen ez dutenean marrazketaren bidezko adierazpenak pisu handia har dezake. Bestalde, nagusiagoak direnean autoerregulatzeko oso garrantzitsuak diren sentimenduak, ideiak eta beraien errealitatea islatzeko tresna interesgarria deritzot marrazketa.</li> <li>- Espresio eredu on bat delako</li> <li>- Marrazkien bidez asko ikasi ahal dugu, askotan umern bizipenak, sentimenduak eta abar adierazita daude.</li> <li>- Kreatibitatea garatzeko, irakaskutza prozesua osatzeko, umeen ideak jasotzeko...</li> </ul>
	Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola sentitzen diren jakin dezakegu, hitzez esan ahal ez dutena marrazkien bidez egin dezakete.</li> <li>- Umeek gamuza asko kontatzeko aukera dutelako.</li> <li>- Esan bezala, komunikatzeko modu bat da. Gainera, LHko 1. urteetan ez dituzte baliabide lingustiko oso garatutak eta marrazkien bidez ezagutu dezakezu dakitena eta ikasi dutena, ebaluatzeko modu bat bezala.</li> <li>- Oso baliabide ona komunikatzeko.</li> </ul>
Ikasten eta pentsatzen ikasi	Ikasketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasten dutelako.</li> <li>- Gehiengoentzat bai, aula inportanteak gogorarazten dizkizu.</li> <li>- Ikasle asko memoria bisuala Dute eta ikasteko baliagarria delako.</li> <li>- Marrazkiak testuak baino erakargarriagoak direlako.</li> <li>- Ikasleen interesekoa delako.</li> <li>- Umeentzako erakargarria eta lagungarria delako.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Edozein gai modu bisual batean aurkezten denean, hobeto ulertzen laguntzen du.</li> </ul>


	Ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Memoria bisualaren bidez askoz hobeto barneratzen eta ulertzen dituzte edukiak. Natur zientzietan adib.</li> <li>- Ulertu dutena adierazteko adibidez.</li> <li>- Laguntzen zaitu gauza asko ulertzen.</li> <li>- Gauza bisualak hobeto ulertzen direlako.</li> </ul>
	Zailtasunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakaslea ez bada marrazketan trebea, nekez irakatsi dezake ganoraz. Hau horrela izanda, zailtasunak izan genitzazke, ikasleak ebaluatzerako garaian.</li> <li>- ?????</li> </ul>
<b>Ekimenez jokatzea</b>	Sormena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sormenaren lanketa.</li> <li>- Kreatibitatea garatzeko, irakaskutza prozesua osatzeko, umeen ideak jasotzeko...</li> <li>- Lehen aipatutakoarekin ildo berdina...Gustoko dutelako eta erakargarria delako (Irudimena lantzeko, sorkuntza, ikasitakoa irudiz irudikatzen...).</li> </ul>
<b>Izaten ikasi</b>	Aisialdia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehienetan marrazten denean asialdiarekin lotzen delako.</li> <li>- Denbora pasa da eta Curriculuma ezartzen duen ordua betearazteko.</li> </ul>

5. taula: irakasleen galdetegiko argudioak marrazkiak baliabide pedagogiko gisa duen erabilgarritasunari buruz

## 5. ERANSKINA: Ikasleentzako galdetegia (egindako galderak eta jasotako erantzunak)


Marraztea gustatzen zaizu?

49 respuestas




Zer maiztasunarekin marrazten duzu?

49 respuestas




Zergatik marrazten duzu? (erantzun bat baino gehiago aukeratu daitezke)

48 respuestas



Normalean marrazten duzunean, zer marrazten duzu?


49 respuestas



- Marrazki librea (nahi dudana marrazte dut)
- Beste norbaitek esaten duena (lagun batek edo heldu batek esaten duena marrazten dut)
- Beste irudi edo marrazki bat kopiatzen dut


Zer jarduera mota gustuko duzu eskolan?

48 respuestas



Zure irakasleak edota gurasoak zure marrazkiak baloratzen dituzte?


48 respuestas



- Bai
- Ez

Nork irakatsi dizu marrazten?


49 respuestas



- Irakasleren batek
- Guraso edo senideren batek
- Lagunen batek
- Nik bakarrik (nire kabuz ikasi dut)

Zuretzat marrazketa jarduera motibagarria edo erakargarria da?

49 respuestas



- Bai
- Ez

## 6. ERANSKINA: Ikasleen adierazpen grafikoak



2. irudia: ikasleek 1. egunean patioan egindako marrazkiak



3. irudia: ikasleek 2. eta 3. egunetan patioan egindako marrazkiak



4. irudia: ikasleek 4. eta 5. egunetan patioan egindako marrazkiak



5. irudia: ikasleek 4. eta 5. egunetan patioan egindako marrazkia